

89

4 euro • 2004ko EKAINA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: IÑAKI MARTINEZ
DE LUNA • ESPERIENTZIA: EUSKAL
ARTE GARAIKIDEA • EKARPENA:
HERRIKO ETA HIRIKO IKASLEAK •
GASTEIZKO KOLDO MITXELENA •



GAIA


Etorkinak
Aniztasuna eta elkarbizitza

OPORRETAKO IRAKURGAIAK

LEHENENGO MAILA



BIGARREN MAILA



HIRUGARREN MAILA




LAUGARREN MAILA



BOSTGARREN MAILA



SEIGARREN MAILA





gaia

ETORKINAK: ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA

Azken urteotan jatorri askotariko etorkinak iritsi dira Euskal Herrira. Kultura, hizkuntza, erlijioa... guzua asko nahasten dira elkarbizitzan. Erantzunik gabeko egue-
ran, hausnarketak nagusitzen ari dira hezkuntzan.



elkarrizketa

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA

Sortu berri den Soziolinguistika Klusterreko lehendakari izendatu dute Iñaki Martínez de Luna. Erakunde berriaren nondik norakoak eta hezkuntzarekiko elkarlanaz mintzatu da.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ETORKINAK: ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA

18 elkarrizketa

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA

26 esperientzia

Euskal arte garaikidea gelara

Zumeta Villabonak gazteekin

28 ekarpena

Desberdinak al dira herrietako eta hirieta-
ko ikasleak? Horren nabarmen? Zertan?
Nola?

Iñaki Martínez

32 hik hasi udako topaketa pedagogikoak

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Erabilera eta kalitatea hobetzeko
ideien fabrika

Gasteizko Koldo Mitxelena institutua


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilu eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gobi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.
Azaleko irudia: Euskadi kultura desberdinek hezkuntzan topo egitearen alde ekitaldia Kursaallean (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-V-31. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 14 08
Faxa: 943/ 37 21 54

editoriala ekaina

Zertan ez dugu asmatu etorkin batek euska- ra ikastea denbora galtzea dela esateko?



Etorkinekin ere euskaraz bizi nahi dugu. Euskaraz erakutsi nahi dizkiegu gure kantak, dantzak, ipuinak, mendiak, herriak, jaiak, jekiak, istorioak eta abar. Euskaraz ikasi eta lan egin nahi dugu.

Herrialde askotariko etorkinen etorrera dela eta, zurrumbilo batean murgildurik gabiltza. Hitzaldiak, jardunaldiak, mahai inguruak, txostenak eta abar gero eta eskurago ditugu.

Euskaldunon kezka iturri nagusietakoak hizkuntza eta kultura dira. XXeko hamarkadan Espainiatik etorritako etorkin batzuek euskara ikasi zuten; beste askok ez. Hemengo kulturari integratzeko ahalegina egin dute batzuek; besteek ez. Euskara hizkuntza gutxitua da eta normalkuntza prozesuan darrari. Hori da errealitatea.

Horri, orain, jatorri askotariko etorkinekiko elkarbizitza gehitu behar zaio. Kultura eta hizkuntza askotarikoak dira. Hori aberasgarria da; elkarri gauza ugari erakusteko bidea ematen du. Guk beraien kultura eta ohiturak ezagutu ditzakegu, eta haiek gureak. Baina iristen al dira gure kultura ezagutzera? Zein kultura ezagutzen dute?

Oso kezagarria da oraindik ere

etorkinen ahotik zera entzutea: *“ongi iruditzen zait euskaldunek bere hizkuntza eta kultura berreskuratu nahi izatea, baina ez diezagutela denoi derrigortu. Euskara ikasten “denbora galdu” beharrean, nahiago dut beste hizkuntza unibertsalagoak ikasi”*. Gu etorkinekin elkarbizitzen hasteko prest gaude, eta beraiek gurekin? Hemen integratzeko esaten dugunean, Euskal Herrian esan nahi dugu, euskal kulturari, euskal hizkuntzari, eta badirudi, askok hori ez dutela argi.

Etorkinen lehenengo premia harreara gizarteko herritarrekin komunikatzea da. Horretarako, hizkuntza ikasi behar dute, eta gaztelaniari ematen diote lehentasuna. Ikusi besterik ez dago jardunaldietan eta hitzaldietan hizketan aritzen diren etorkinak nola mintzitzen diren. Batzuek, gero, euskara ere ikasten dute; beste batzuek ez. Hor, gure hizkuntz normalkuntzarako beste oztopo batekin aurkitzen ari gara.

Gizartean oro har hori gertatzen ari den bitartean, zer pasatzen da eskolan? Orain arte A ereduari eskolatzen ziren haur etorkin gehienak. Zer ari gara egiten? Familiak nahi duten ereduak aukeratzeko askatasuna dute. Baina ematen al zaie hemengo errealitate linguistikoren berri? Esaten al zaie A eta B ereduari eskolatuz gero ez dutela lortuko hizkuntza sistema honetan finkatzen den helburua; hots, bi hizkuntza ofizialak ahoz nahiz idatziz menperatzea? Esaten al zaie hizkuntza ofizialetako bat ez jakiteak eskubideak murriztea dakarrela? Esaten al zaie euskara jakiteak garrantzi handia duela integrazioari begira?

Ahalegin gehiago egin beharrean gaude Hemengo dantzak eta abestiak erakusteko prest gaude; gure mendietan eta herrietan barna paseatzeko prest gaude; gure plater eta edari goxak partekatzeko prest gaude; baina hori dena euskaraz bizi nahi dugu.

kronika

Ikas-Bik helegite bat aurkeztuko du Frantziako Hezkuntza Ministeritzaren aurka araudia ez duelako betetzen. Izan ere, gurasoek eskola publikoan eredu elebidunaren aldeko hautua egin arren, Hezkuntza Ministeritzak ez ditu kontuan hartzen eskaerok. Ikas-Biko lehendari Thierry Delobelek aditzera eman duenez, "ez du indarrean ezartzen egiazko elebitasuna, bi hizkuntzen arteko oren parekotasuna hausten delako".

Hurrengo ikasturtean 200 haur gehiago izanen dira eredu elebidunean, baina Ministeritzak ez du aurreikusten gela berriak irekitzea, ezta postu bat bera ere gehitzea.

Bien bitartean, LAB, CGT, CNT, SOE eta SUD sindikatuak hezkuntzari buruzko foroan bildu dira, eta hainbat gai landu dituzte: eskolaren salmenta prozesua eta jendeen eta gogoen formateaketa; eskolaren pribatizazioa eta salmenta prozesua; prekaritatea; eskola eta euskara; borroka moldeak.

Sindikatuak Frantziako Gobernuak eskola enpresa bihurtzen duela salatuko dute.



0-3 etapa arautzeko dekretua kaleratzeaz da Nafarroan

Laster kaleratuko du Hezkuntza Departamentuak 0-3 etapa arautuko duen dekretu forala, eta horrek hainbat aldaketa ekarriko ditu. Besteak beste, Hezkuntza Departamentuaren esku geldituko dira adin horretako haurrak hartzen dituzten zentroak. Horri loturik, gainontzeko ikastetxeek bezala, hezkuntza proiektua definitu beharko dute eta Hezkuntza Departamentuak onartu beharko du berau. Ziklo horren planifikazioaz ere departamentu hori arduratuko da, udaletxeekin koordinatuta. Hezitzaileen lan eskakizunei dagokienez, titulazioa eta zereginak finkatu egingo ditu, eta egoitzen baldintza fisikoak ere araututa geldituko dira. Dekretuak ezarriko dituen aldaketak egiteko epe bat ezarriko da.

Gaur egun 0-3 etapako 58 zentro publiko daude 43 lekutan banatuta; Ongizate Sozialak finantzaturako beste haurtzaindegi bat; Haur eta Lehen Hezkuntza baimenduta dituzten 19 zentro kontzertatu; baimenik gabe 3 urtetik beherakoak dituzten beste lau; administrazioaren baimenik gabe 3 urtez azpiko haurrak eskolatzen dituen eskola publiko bat (irakasleak guraso elkartearen bidez kontratatzen dituen); matrikula kopuru txikia dela eta 2 urteko haurrak 3 urtekoekin dituzten zortzi eskola publiko; eta 70 haurtzaindegi pribatu inguru.

Luis Campoy Hezkuntza kontseilariak azaldu duenez, dekretuarekin egoera hori arautu eta antolatu nahi da, Hezkuntza Departamentuaren ikuskaritza batekin.

Herrikoa guraso elkarteak arautze horretan heziketa ezaugarriak aintzat hartzeko eskatu dio kontseilariari. Horrekin batera, udal haur eskolak erreferentziazat harturik, eskaintza publikoa gehitzeko eskatu du. Eta noski, euskarazko eta gaztelaniazko eskaera kontuan hartzeko ere bai. Zentzu berean, kezka agertu dute sortzen ari diren eskaintza asistentzian inguruan. Euren ustez, eskaintza publiko nahikoa egongo balitz, eskaintza hezitzaile hori hautatuko lukete gurasoek. 2 urteko haurrak baldintza txarretan dituzten gelen arriskuaz ere ohartarazten dute.

Helezinak direlako, egia absolutuen aurki-kuntza baino areago, etengabeko mugimendua, bilakaera eta garapena dira zientziaren ezaugarri behinenak.

Sheldon Glashow (fisikaria)



Kalitate Legea geldituko erabakia hartu da

Espainiko Hezkuntza ministro Maria Jesus San Segundo autonomia erkidegoetako hezkuntza ordezkariekin bildu zen eta adierazi zien Kalitate Legea ezartzeko egutegia geldituko dela. Horrek ez du esan nahi LOCEk planteatzeko zituen neurri guztiak bertan behera geldituko direnik; zenbait erabaki mantendu egingo dira, besteak beste 3-6 urteko etaparen doakotasuna. Aitzitik, beste zenbait neurri indargabetu egingo dira: Batxilergoa bukatu ostean egin beharreko errebalida azterketa, DBHko 3. mailan hautatu beharreko ikasketa ildoak eta erlijioa derrigorrezko ikasgai bezala ezartzea.

PPren esku dauden erkidegoak PSOEn erabaki honen aurka agertu dira, eta gainontzekoak, berriz, alde.

Nafarroaren kasuan, Luis Campoy kontseilariak MECek markatzen duenera egokituko dela esan zuen. Baina hainbat sindikatuk eta erakundek salatu dutenez, Kalitate Legeko neurriak praktikan jartzen jarraitzen du. Besteak beste, zuzendaritzaren hautaketa egiteko prozesua horren arabera egitera doa, agindu foral bat eman duelarik horri bidea irekitzeko. Horrela, zuzendaritza aukeratzeko orain arte azken hitza Eskola Kontseiluak baldin bazuen, orain administrazioko ordezkariak pisu handia hartzen dute. Gainera, ikastetxetik kanpoko funtzionario bat zuzendari izateko bidea ere irekitzen du. Hainbat sindikatu, zuzendari elkarte eta beste erakunde batzuk prozesu berri horren aurka agertu dira. Baina ez dago denborarik beste alternatiba bat bilatzeko; zeren LOCE aplikatzeko egutegia utziko du bertan behera PSOEk, eta ez legea bera.

Horrez gain, eskoletara agindu batzuk bidali dira datorren ikasturterako ikasketa ibilbideen eta DBHko eta Batxilergoko aukeren gainean. Hori guzti ikastetxeko profesionalekin kontatu gabe egin dute, eta gurasoen eta ikaslearen artean noraeza sortu du. Beste zenbait agindurekin ikastetxeen autonomia murrizten dela ere salatu du CCOO sindikatuak, eta horrek aniztasunari aurre egiteko ikastetxeko proiektua bideratzea zailagoa egingo duela.

Euskadiko Eskola Kontseiluak txosten bat kaleratu du 2000 eta 2002 urte bitarteko hezkuntza sistemaren egoera aztertu ondoren.

Atera duen ondorioetako bat zera da: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoetan biltzen direla premia soziokulturalak dituzten familietako seme-alabak eta Espainiatik kanpo etorritako etorkinen haurrak. Horrek gizartean sor dezakeen etena ekiditeko, itunpeko eskolei ere haur horiek hartzeko deia egiten die Eskola Kontseiluak.

Beste ondorio bat da DBHn eta ondoren hautsi egiten dela sareen arteko oreka; hots, sare kontzertatuak jasotzen dituela ikasleek bi heren eta publikoak heren bat.

Eskola Kontseiluak egoeraren deskribapenarekin batera, hainbat proposamen egin ditu eta Hezkuntza Sailari helaraziko dizkio, gero hark erabakiak har ditzan.

Esate baterako, giza baliabideen esparruan irakasle funtzionarioen %70 2010 eta 2020 urteen artean jubilatuko dela kontuan hartuta, egoerari aurre egiteko neurriak hartzeko aholkua ematen du.

Ikastetxeen eta administrazioaren arteko harremanak estutzeko ere zenbait neurri aipatzen dira txostenean. Zentroen autonomia garatzeko bideari heltzeko premia ere aipatzen da. Txostena laster sarean ipiniko dute eta edonork eskuragarri izango du honako helbide honetan:

www1.hezkuntza.ejgv.net/did2/d2_c.htm

Etorकिनak

aniztasuna eta elkarbizitza





Etorkinak, kultur aniztasuna, errespetua, integrazioa, hizkuntza aniztasuna, erlijioa, chiturak... zer ez da entzuten azkealdian. Errealitate berri baten aurrean gaude. Lehen ere etorkin ugari etorri ziren Euskal Herrira, batez ere Espainiatik industrializazioak eraginba. Orain, ordea, herrialde askotatik datoz. Horrek, gero eta gizarte anitzagoaren sorrera dakar. Elkarrekin bizi behar dugu, elkar errespetatuz, baina ez da erraza. Teoriatik praktikara pasatzean, pentsamenduetatik eguneroko bizi-modura, kontraesanak sortzen dira. Eta hor gaude, kontraesan horiei buelta eman nahian.

Kontraesanak gainditzeko ahaleaginean

2000-01 ikasturtean Hego Euskal Herrian 6.469 ikasle etorkin zeuden; EAEn ikasleria osoaren % 1,8 ziren eta Nafarroan %2. Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 2003-04 ikasturtean EAEn ikasleria osoaren %3,13 osatzen dute etorkinek. Kopuru horiek ugalduz doaz, eta asko gainera; EAEn %47 igo da etorkinen kopurua azken ikasturte honetan. Egoera horrek planteamendu berriak egin behar ekarri du eskoletan.

Erraza da erlijio eta kultura guztiak errespetatu behar direla esatea, baina zer gertatzen da neska musulmanek soinketakoko eskoletara ez direla joango esaten dutenean?

Erraza da jatorrizko hizkuntza errespetatu behar zaiela esatea, baina zer gertatzen da hona etorri eta euskararik ikasten ez badute?

Erraza da etorkinak etortzearen alde gaudela esatea, baina zenbat aldiz entzun dugu lana kenduko digutela eta hobe dela gehiegi ez etortzea?

Erraza da eskola haur guztiak onartzeko prest dagoela esatea, baina nahiago dugu ikasle horiek beste bati egokitzea.

Inork ez du soluzio garbirik kontraesan horiei eta sortzen diren gatazkei aurre egiteko. Baina horren inguruan hausnartzen eta hitz egiten hasiak gaude: pentsalariak eta adituak hitzaldiak ematen ari dira; jardunaldiak, ikastarokak eta mahai inguruak gero eta ugariagoak dira; etorkinak taldetan antolatzen ari dira eta euren ahotsa entzuten ari da; irakasleak hausnartzen eta erabakiak hartzen ari dira, instituzioak neurriak hartzen hasi dira...

Adar asko dituen egoera da: erlijioa, kultura, hizkuntza, ohiturak... denak nahasten dira. Horietako batzuk kontu pertsonalak edo etxeokak dira; beste

batzuk, ordea, kalekoak edo eremu publikora pasatzen direnak. Eta hor, bizi-lagunekin, ikaskideekin, lankideekin... egiten dugu topo. Bizikidetzaren aldeko jarrera hartu beharrean gaude. Baina hori bideratzeko modu ugari egon daitezke, eta garrantzitsua da ematen zaion fokatzeari. Ikusi besterik ez dago frantziar estatuan laikusaren inguruko lege berriak sortu duen oihartzuna; batzuek modu batean uler-tzen dute laikusaren, eta beste batzuek beste batean. Eta ondorioz, aldeko zein kontrako ahotsak entzun dira, bai frantziar estatuan eta bai hemen Euskal Herrian.

Lege horretan bertan eta aurrekoetan, herrialde horrek berak frantsesari, bertako hizkuntza gutxituei (tartean euskara) eta etorkinen hizkuntzei ematen die tratamendua ere begi zorrotzez begiratzekoa da.

Hezkuntza arloan eragina duen gaia izanik, irakasleek eta etorkinek esateko dutenari ere leku egin behar zaio. Eskerak eta eskaintzak, biak aztertu behar dira.

Desertu honetan gehituko ditugun hondar aleak izango dira aipatu ditugun adibideak, betiere ale gehiago daudela jakitun.



G

Laikotasunaren eta erlijio askatasunaren arteko muga definitu ezinik frantziar estatuan

Stasi txostena

Frantziar estatuan laikotasunaren eta erlijioaren arteko egoera gatazkatsuak bere isla izan du eskoletan. Azken hamarkadetan hainbat gatazka juridiko sortu dira eta neurri ugari hartu dira. Hala ere, arazo ez zela konpontzen ikusita, 20 adituk osatutako batzordeak Stasi txostena egin du. Egoera aztertzearekin batera, hainbat proposamen luzatu ditu, eta horren haritik etorri da frantziar estatuko eskola publikoetan erlijio zeinu nabarmenak eramatea debekatzen duen legea. Erabaki polemikoa izan da; aldekoak zein aurkakoak kalera atera dira, eta hermendik aurrera, ikusteko dago zein eragin izango duen eskola-ko eguneroko jardunean.

EHUko Administrazio-Zuzenbide Fakultateak, EHUko Hegoa Institutuak eta Eusko Jaurjaritzako Hezkuntza Sailak Kultura aniztasuna eta laikotasuna jardunaldia antolatu zuten Bilbon. Besteak beste, Pauko Unibertsitaeko Henry Labayle irakasleak Stasi txostena aurkeztu zuen, bere jatorria, edukia eta ondorioak aipatuz.

Non dago polemikaren mui-na?

Komunikabideetan neska eta emakume musulmanek erabiltzen duten zapia agertu da behin eta berriz. Baina hori arazoaren zati bat besterik ez da, icebergaren punta baino ez. Muinean erlijioaren eta estatuen arteko gatazka dago. Eta Stasi txostena hortik abiatu da. XXI. mendeko Frantziar Errepublikako erlijioaren eta zerbitzu publikoaren arteko erlazioaren deskripzio bat egiten du. Esanguratsua da ohartzea txostenaren 100 orrialdetatik 4 baino ez direla zapiari buruzkoak; gainontzekoak zerbitzu publikoaren laikotasunari buruzkoak dira.

Txosten hau egin duen batzordean parte hartu du Paueko Unibertsitateko Henry Labayle irakasleak, eta bere iritziz, egungo arazoa ez da estatuen eta elizaren arteko gatazka bat, arazo sozial bat baizik. Bi hausnarketa aipatzen ditu berak. Lehena, integrazio mekanismoen porrota. *“Gure gizarte modernoak ez du gaitasunik bere lurretan etorkinak hartzeko eta onartzeko. Ezin ditugu besteak onartu. Ez daukagu gaitasunik ikaskuntza batzuk toleratzeko eta beste kulturak eta erlijioak ulertzeko. Eta porrot sozial horri guri gizarte modernoetako espiritu erlijiosoaren mutazio sakon bat gehitu behar zaio. Hau da, integrismoarako itzulera. Mugimendu militanteek erlijioa bultzatzea ez da gauza berria, iraganean ere horrelakoak egon baitziren. Orain, ordea, arazoa zera da: fenomeno horiek komunitate berri batean integratzeko arazoak dituen komunitatea sinbolizatzen duen erlijio batean oinarritzen direla. Kasu honetan komunitate mu-*



sulmana”. Ondorioz, fenomeno erlijiosoetara beste erabilpen bat ematen zaie la dio (ez erlijioso), eta zerbitzu publikoetan arazoak sortzen direla.

Laikotasuna frantziar estatuan

- Frantses Iraultzaren ondoren estatuen eta elizaren arteko gaia modu gatazkatsuan planteatu zen.

- Napoleon iritsitakoan, XIX. mendean, halako bake bat lortu zen Eliza Katolikoarekin Konkordatuaren bitartez.

- XIX. mendearen bukaeran berriro ere arazoak sortu ziren. Laikotasuna planteatu zen.

- 1905. urtean elizaren eta estatuen arteko banaketa ezarri zen lege baten bitartez. “Errepublikak kontzientzia askatasuna bermatzen du eta kulturako askatasuna zaintzen eta bermatzen du” dio legeak.

- 1946ko konstituzioak irakaskuntza laikoa bermatuko du.

- 1985ko konstituzioak Errepublika Frantsesa laikoa dela dio.



G A I A

Etorkinak

aniztasuna eta elkarbizitza

G

Laikotasuna eta zerbitzu publikoen arteko elkarbizitza

Erljio askatasunak eta laikotasunak topo egin izan dute frantziar estatuko zerbitzu publikoetan, eta bien arteko mugen artean hainbat gatazka eta arazo sortu izan dira.

- 80ko hamarkadaren amaieran eskola batean gatazkak sortu ziren zuzendariak zapia zeramaten hiru neskei eskolara sartzea galarazi zirenean. Musulmanak neurriaren aurka agertu ziren, eta zuzendariak Estatu Kontseilura jo zuen babes bila. Erakunde horrek frantziar estatuko laikotasuna defendatu zuen 1989ko txosten batean, baina aldi berean, kontzientzia eta konfesio askatasuna printzipio konstituzionalak dirrela zioen, eta inolako kasutan ezin dela modu orokorrean debekatu oinarrizko printzipioren bat urratzen bada.

- Urte berean, zirkular bat idatzi zuen orduan Hezkuntza ministro zen Lionel Jospinek eta bertan biltzen zen Estatu Kontseiluaren txostena, esanez erlijio ikurrak ez zirela bateraezinak laikotasun printzipioarekin, baina ez zuen onartzen ikasleek beren konfesioa oso modu argian eta zeinu nabarmenekin adieraztea, presio, propaganda edo probokazio ekintza izan baitzitekeen. Zailtasunak sortuz gero, ikasleekin negoziatu eta hitz egin behar zela zioen, zigorrera pasa aurretik.

- Hezkuntzatik at ere, hainbat arazo sortzen dira. Esate baterako, emakume musulman askok ukatu egiten zuten mediku gizonetakoekin egotea, baita larrialdiko egoeratan ere. Horrek ospitaleko barne bizitza zailtzen zuen.

- Hainbat herritan emakume musulmanak ez ziren piszina joaten gizo-

nezkoekin batera. Horregatik, zenbait ordutan itxi egiten zituzten eta emakume horientzat erretserbatu. Erljio askatasunaren eta elkarbizitzaren arteko bateragarritasunak kezka sortzen zuen.

- 1994an beste zirkular bat egin zen eskola publikoetarako, askoz ere zorrotzagoa. Zeinu nabarmenak eta neurrizkoak bereizten zituen.

- Hala ere, gatazkek jarraitu egiten dute.

- 2003. urtean, errepublikako presidentek Stasi txostena egiteko agindu zuen.

- 2004ko otsailean eskola publikoetan erlijio zeinu nabarmenak erabiltzea debekatzen duen legea onartu zen, tartean islamistei hijab edo buruko zapia.

Stasi batzordearen osaketa eta lan antolaketa

Stasi batzordea 20 lagunek osatu dute, eta horien artean erlijiosoak, goi funtzionarioak, magistratuak, unibertsitateko irakasleak, Hezkuntza eta Osasun Ministeritzetako administrazio arduradunak, filosofoak...

Sei hilabetetan zehar elkarrizketak egin dituzte hainbat pertsonekin: ikasleak, irakasleak, erizainak, medikuak, pentsalariak, alderdi politiko guztieta-ko arduradunak, sindikalistak... Batzordeak Alemania, Britania Handia, Belgika, Herbehereak eta Italia bisitatu zituen.

Proposamenak

Hona hemen txostenean egiten diren zenbait proposamen eta gomendio:

- Laikotasunaren kode bat proposatzen du. Frantses Zuzenbidean laikotasunari buruz dauden testu, araudi eta lege guztiak bildu eta bakar batean bil-

tzea proposatzen du.

- Eskola frantsesean zenbait erlijiori eta hizkuntzi buruzko ikasketak esku-bidezkoak izatea eskatzen du.

- Eskoletan erlijio zeinu nabarmenak eramatea debekatuko lukeen lege bat beharko litzateke.

- Erljio ohituren aniztasuna onartzea proposatzen du eskoletako jangelatan.

- Komeni da osasun zentroek gaixo-arengaineko eskubideak gordetzea eta ospitaleetan sartzen direnek dokumentu bat sinatzea ospitaleko praktikak onartuz, erizainek eta medikuek horrelako arazorik izan ez dezaten.

- Espetxeetan imanen presentzia onartzen da, konfesio horretako presonekin egoteko.

- Egutegi frantsesean bi erlijio jai egun onartzea; bat musulmana eta beste judutarra.

Proposamenetatik legera

Errepublikako presidentek 2003ko abenduaren 17an jaso zuen txostena eta hainbat proposamen alboratu egin zituen. Esate baterako, jai egunak onartzea. Bestalde, laikotasunaren aldeko kodearen alde agertu zen, eta baita laikotasunaren behatoki baten alde ere. Zeinu nabarmenen debekuari buruzko legea egiteko proposamenari ere baiezkota eman zion.

Horrela, 2004ko otsailean onartu zen legea eta honakoa dio: *"ikastetxe eta institutu publikoetan ikasleek debekatuta daukate zein erlijiotakoak diren adierazten duten zeinu nabarmenak eramatea. Barne araudiaren arabera joka liteke, betiere aurretik ikasleekin elkarrizketatu ondoren"*.

Denak debekuaren aurka

Frantziar estatuko legea izan zen hizpide jardunaldien barnean antolatu zen mahai inguruan. Lau mahaiakideak legeak ezartzen duen debekuaren aurka agertu ziren, eta azaldu zituzten argudioak laburbildu ditugu jarraian.



“Zer da integrazioa? Zeurea den guztia utziz moldatzea hemengora?”



Lidia PUIGBERT

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea

Mugimendu feministako kide honek, Fatima Talebidazole marokoarrarekin eta Lena de Botton Bartzelonako Unibertsitateko irakaslearekin batera *Aukeratutako zapia* liburua argitaratu berri du. Liburua idazteko garaian, hainbat emakume musulmanekin egon ziren, eta horietako gazte batek zioena gogorarazi zuen mahai inguruan: hari zapiak ilea soilik estaltzen ziola, eta ez adimena. *“Horrekin ez zuen islatu nahi zapia eramateko zeukan eskubidea soilik, baita ere besteek ez eramateko zeukatena. Hau da, aukeratzeko eskubidea izatea”* argitu zuen Lidiak. Hori aldarrikatzen dute.

Emakume askok urte askotan borrokatu dute inongo gizonen beraien

partez ez erabakitzeke. Inongo familiek beraien ordez ez erabakitzeke borrokatu dute. Eta orain, inongo lege etnozentristek beraien partez ez erabakitzeke edo definitzeke borrokatzen ari dira. Stasi batzordearen egiturari berari begiratuta, emakumeen pisua txikia dela azpimarratu zuen Lidiak. *“Ondorioa zera da: nor erabakitzen du gizaki guztioi dagozkigun arazoei buruz?”*



Fatima Taleb

Idazle marokoarra

Hijab-a jantzita hitz egin zuen Fatima Talebidazole marokoarrak mahai inguruan, eta hasieratik bertatik argi utzi nahi izan zuen hijab-a edo zapiaren esanahia: bata barrukoa, portaera multzo bat, eta bestea kanpokoa, jantzeko modua. *“Hijab jantzten duten emakumeak hiru motatakoak direla*

esan daiteke. Lehenek ohituragatik jantzten dute: amona edo ama horrela ikusten dituzte, eta zergatik jakingabe, ohituragatik, eurek ere jantzi egiten dute. Bigarrenek senarrak, aitak edo anaiak derrigortzen dituztelako jantzten dute. Agian gizon horiek ere ez dakite oso seguru zein den hijab-aren esanahia. Eta hirugarrenik, nahi dutelako eramaten duten emakumeak daude, badakitenak zergatik jantzten dute”. Sarritan emakume horiek ez dutela pentsatzen, ez dutela ikasketarik eta abar pentsatzen dela zioen Fatimak, baina ez dela egia. *“Hemengo emakumeak bezalakoak gara; desberdintasun bakarra arropan dago”*.

Hemengo emakumeek zapidun emakumeak ez dituztela onartzen konturatzen da Fatima, eta argudio bezala integratu gabe daudela esaten omen dute. *“Eta nik galdetzen dudana zera da: zer da integrazioa? Zeurea den guztia uztea eta hemengora moldatzea? Ez dut ulertzen zer esan nahi duen integrazioak eta jendeak zer ulertzen duen horrekin. Katalunian bizi diren emakume batzuek zapia eramaten dute, baina katalana hitz egiten dute, kultura katalana ezagutzen dute, hemen bizi dira eta katalanak sentitzen dira. Orduan, zer da integrazioa?”*



Amelia Barquin
Mondragon Unibertsitateko HUHE-
ZI Fakultateko irakaslea

Emakumeei zapia eta hijab-a eramatea debekatzen dien legearen aurka agertu zen, eta eskola ingurunean debekua justifikatzea oso zaila iruditzen zaiola aipatu zuen. *“Nola esplikatzen du neska musulman bati berak ezin duela arropa hori eraman? Bera dela gela osoan arropa egokia ez daraman bakarra?”*

Gaur egungo nerabeen artean izugarrizko aniztasuna dagoela azpimarratu zuen: ile mozketa askotariko gazteak daude, kolore askotarikoak, luzpenak dituztenak, piercing-ak dituztenak, belarritakoak, tatuajeak... *“Horiek denak bai eta neska musulmanaren zapia ez? Orain dela gutxi neska autoktonoek buruan zapi bat eramaten zuten; zapi hori bai eta neska musulmanarena ez?”*

Hemengo gazteak ere ez direla askatasun osoz jantzen azpimarratzen zuen. Modak, kontsumo gizarteak eta partaide diren taldeak bultzatuko joerak jarraitzen dituzte, eta horiek ere, erlijioak dira bere ustez.

Zapi musulmana debekatzeko argudioetako bat horren azpian dagoen

“Nork epai dezake zapi baten azpian dagoen ustezko ideologia?”

G A I A

Etorkinak

aniztasuna eta elkarbizitza

G

erlijioa izan da, eta horretan sakondu nahi izan zuen Ameliak. *“Nork du eskuduntza herrialde laiko batean zapi baten edo beste baten azpian dagoen ustezko ideologia interpretatzeko eta epaitzeko?”*

Gatazka horren erdian eskolak kohesiorako tresna izan behar duela azaldu zuen. Eskolak balio batzuk irakasten edo transmititzen ditu, eta horiek elkarbizitza erraztuko duen oinarri bat ahalbidetu beharko lukete. *“Funtzio hori oso zaila izango da aurrera eramatea baldin eta nortasun anitzaren eraikuntza oztopatzen duten zauriak sortzen badira. Eta modu agerikoan edo ezkutukoan ikasle musulmanei islam gizartearentzat arriskutsua dela transmititzen baldin bazaie ere bai”* gaineratu zuen Ameliak. Desberdintasunak debekatzeko bidea hartu da, baina bere ustez, ez da bide egokia. *“Hezitzaileok badakigu gatazka naturala dela giza harremanetan, eta hori bideratzen jakin behar dugu. Eskola leku pribilegiatua da pertsonen artean sortzen diren gatazkek bideratzeko; horiek alboratzea aukera on bat baztertzea da”*.

Egunerokotasunean sortzen diren arazoen aurrean elkarrizketa dela garrantzitsua azpimarratu zuen. Zerbait musulmanek seme-alabak musika, soinketa, plastika edo beste ikasgai batzuetara joateari uko egiten diote. Horrelako kasuetan familiekin, lider espiritualekin eta abar hitz egin behar da, legera jo aurretik gainontzeko errekurtsio guztiak erabiliz. *“Ez dago kriterio orokorrik. Horregatik, hitz egin, hitz egin eta hitz egin; hori egin behar da”*.



Miguel Argibay
Hegoa Institutuko kidea

Zapiaren inguruan sortu den polemikaren aurrean kritikoa agertu zen Miguel Argibay. Arreta deitzen dio zapi bategatik horrelako iskanbila sortzeak; eta horregatik uste du horren azpian badagoela zerbait gehiago. Erlijioen eta estatu laikoaren arteko harremana argitu behar dela uste du berak, eta horretarako beste kontu batzuetan zentratu beharko luketela, eta ez zapien. Fundamentalismoari aurre egiteko neurria izan da legea, baina kontrako ondorioa izango duela aipatu zuen. *“Fundamentalismoak esango du beraiek direla nortasun erlijiosoak eta komunitatea defendatzen duten bakarrak. Eta horrela, arazoa konpondu beharrean, handitu egingo da, liskarrak, desadostasunak eta nahasteak sortuko baitira”*.

“Gure arteko desberdintasunekin errespetuz elkarbizitzen ohitu behar den lekua da eskola”

Laikotasuna eta hizkuntzak: Stasi txostenaren hizkuntza paradoxa



Iigo URRUTIA

EHko Zuzenbide Konstituzionaleko,
Administratiboko eta Zuzenbidearen Filosofia
Saileko irakaslea

Stasi txostenak eztabaida sozial eta politiko bizia ireki du laikotasun printzipio errepublikarraren, bere eraginen, hedaduraren eta edukiaren inguruan. Sakontasun handiko eztabaida da, gai erlijiosoarekin hasi arren erregimen konstituzionaleko oinarriko printzipioak ukitzen baititu; bereziki, batasun nazionalaren eta herri frantsesaren bakartasunaren printzipioak eta beronen ezarpena kulturalki eta linguistikoki gero eta anitzagoa den testuinguru sozialean. Konstituzio frantsesaren barruan eduki politiko garbia duen gaia da. Berdintasuna adierazpen desberdin guztiak isilaraziz eraiki da Frantzian, bertan hitz egiten diren hizkuntzen kasuan ikusi den bezala. Hizkuntzen aldetik begiratuta, lurralde frantsesa Europako herrialde anitzena da. Baina, aniztasunaren horren aurrean Zuzenbideak eman duen erantzuna oso murriztailea izan da. Batasun nazionala eraikitzeko, gizarte homogeneoa bultzatu da. Batasuna bilatu nahi izan da, eta ez elkartasuna, eta prozesu berdintzaile baten bitartez burutu da. Hizkuntza frantsesa hartu da nortasun

batuaren adierazpidetzat. Helburua hizkuntza berdintasuna lortzea zen, eta horretarako hizkuntza politika murriztaileak erabili dira gaur egun hizkuntza “erregionalak” deritzogun hizkuntzen kasuan.

Laikotasunaren printzipioa berorientatu nahi den honetan eta batasunaren eta aniztasunaren artean oreka bilatu nahi den honetan, hizkuntzen afera ez da oharkabea pasa. Horrela, Stasi txostenaren proposamenetako batek hezkuntza sistema frantsesean atzerriko hizkuntza ez estatalen irakaskuntza sartzea aipatzen du, hizkuntza berbera (tamaziht) eta kurdua izendatuz. Gure hausnarketa paradoxa bat bezala ikusten dugu. Izan ere, batetik laikotasun printzipioaren garapen teorikoak kolektibo batzuen hizkuntzaren ikasketa bermatzea eskatzen du, integrazio soziala lortzeko eta desberdintasuna ezabatzeko. Eta bestetik, Frantziako eskualdetako hizkuntzen garapen aukera eta ikaskuntza batere egonkortasunik gabeko marko juridikoan mugitzen dira.

Frantsesaren nagusitasuna

Frantzian laikotasun printzipioaren garapen historikoak ez du neutraltasunez jokatu hizkuntzen egoerari dagokionez. Irakaskuntzaren laikotzea hizkuntzen eboluzio historikoarekin lotuta dago. Iraultza garaitik aurrera, frantsesaren ezagutzaren hedapena helburu bihurtu zen hezkuntza publikoaren sisteman. Nazioa hiritar multzotzat hartu zen eta kultura eta hizkuntza bakar batean integratuz lortu nahi zen euren arteko batasuna. Horrela, hizkuntza batasuna ezarri zen Estatuaren batasunaren izenean. Estatu-nazioak hizkuntzaren eta kulturaren batasuna bilatzen ditu, modu horretan Frantziako hiritar

guztiak berdina izateko. Pentsamendu bateratzaile hori Estatuaren eta gizartearen banaketatik sortzen da. Izan ere, gizabanakoaren berdintasuna baieztatzen du Estatuaren aurrean eta berekiko harremanetan, baina ez du gizarteko berdintasuna bermatzen, ezeztatu baizik.

Nahiz eta Frantziako hizkuntza aniztasuna agerikoa izan, Errepublikako nortasunaren eraikuntza oztopo izango da eskualdetako hizkuntza gutxituetako hiztunen hizkuntza eskubiak onartzeko.

Hizkuntzei buruzko legeria frantsesa oso eskasa eta norabide bakarrekoa da. Errepublikako hizkuntzaren aldekoa da, eta kaltegarria frantsesa ez gainontzeko hizkuntzentzat. Juridikoki euskararen eta Frantziako eskualdetako gainontzeko hizkuntzen ikasketaren bermea ezegonkorra da eta ez da nahikoa. Hizkuntza legeriak bi ondorio ditu. Alde batetik, hezkuntzan normal-

Paradoxa bat dago. Batetik laikotasun printzipioaren garapen teorikoak kolektibo batzuen hizkuntzaren ikasketa bermatzea eskatzen du, integrazio soziala lortzeko eta desberdintasuna ezabatzeko. Eta bestetik, Frantziako eskualdetako hizkuntzen garapen aukera eta ikaskuntza batere egonkortasunik gabeko marko juridikoan mugitzen dira.

tasun linguistikoa ezartzen da frantsesarentzat. Hori egoera diglosikoan aurkitzen diren hizkuntzen normalkuntza politiketan jartzen diren antzeko araudiaren bitartez egiten da. Horrela, lege, frantsesa da Frantziako hezkuntzako hizkuntza, eta bere testuinguruaren arabera batere zerikusirik ez duen babes neurriak hartzen dira. Bestetik, legeak hizkuntza gutxituak ikasteko aukera aipatzen du, baina legalki ez du ezer definitzen hizkuntza horien erabilera behikularrari buruz frantsesaren irakaskuntza errazteko ez den kasuetarako. Ondorioz, hizkuntza horien irakaskuntza inolako babes legalik gabe gelditzen da.

Irakaskuntza elebidunaren egoera ez da hobe. 2001. urtean erreforma garrantzitsua burutu zen Frantziako irakaskuntza elebidunean, hainbat arau eman zirelarik ordurako Iparraldean erabiltzen ziren eredu elebidunak onartuz: murgiltze sistema -Seaskan erabilia-, erabilera behikular mistoa eta euskara ikasgai bezala duen eredu -azken bi eredu horiek hainbat ikastetxe publikotan eta girstino pribatutan daudenak dira-. 2002ko urrian Estatu Kontseiluak baliogabetu egin zituen murgiltze eredu eta ordutegi parekotasuna zituen eredu, sistema bien estaldura legalik eza nabarmenduz. Laburtuz, eskualdetako hizkuntza gutxituen irakaskuntza guztiz ezegonkorra da, eta gaur egun gurasoek ez dute babes legal nahikorik euren seme-alabek beraien eskualdeko hizkuntza ikas dezaten.

Homogeneizatzeko joera

Testuinguru honetan, zer ondoriozta liteke? Frantziar laikotasun kontzeptuaren birdefinizioa erregimen

errepublikarraren oinarrian dauden kategoria politikoengurua dabil. Komunitate politikoa gero eta aniztasunaren heinean, subitanotasunaren printzipioan eragiten du. Batasun errepublikarraren printzipioa nortasun askotarikoak dauden oinarri sozial batean ezarri behar da, eta oinarri hori gero eta nabarmenagoa eta ugariagoa da. Hiritarra ez da nortasun primario homogeneo bat; hau da, ez da kultura eta hizkuntza homogeneo batean oinarritutako herri bakar bat. Nortasun primario horiek inoiz ez dira homogeneoak izan, baina orain are eta gutxiago. Gaur egun, kultur aniztasuna hainbat iturritatik aberasten da. Dagoeneko ez daude Errepublikaren eskualde batzuetan kokatutako hizkuntzak eta kulturak soilik; hots, euskara, katalana, okzitania, bretoiera eta besteak. Gutxiengo nazional horien ondoan hainbat arazoigatik etorritako beste herrialdeetako gutxiengo kulturak daude. Gutxiengo nazionalen kasuan, Zuzenbideak planteatzen duen erantzun klasikoa autodeterminazioarena da. Gutxiengo kulturalen kasuan, gizarte demokratikoen erronka aniztasun hori antolatzea da, modu horretan demokraziaren osagai izan daitezten.

Ikuspegi horretatik, positiboki baliotsi behar da Stasi txostenaren proposamena, irakaskuntza sistema nazionalaren bitartez etorkinen hizkuntzen irakaskuntza ahalbidetzea proposatzen baitu. Norberaren hizkuntza ikasteak gaitu egiten du eskola asimilazio linguistikorako tresnatzat hartzea. Edonola ere, badira hausnartu beharreko hainbat puntu. Izan ere, badi-rudi laikotasunaren birdefinizioa gutxiengo guztiak gizarte frantses bateratuan integratzeko prozesura mugatzen

Aniztasuna oso mugatua gelditzen da. Ez da planteatzen norberak bere nortasuna garatzeko biderik. Finean, hizkuntza frantsesak Estatuaren erlijioa izaten jarraitzen du. Hizkuntzaren aferak laiotze prozesu sakon baten premia du.

dela, bai gutxiengo nazionalak bai kulturalak. Orain arte eskualdetako hizkuntza komunitaterako zeuden integrazio mekanismoak hedatu nahi dira gutxiengo kulturaletarako ere.

Azken finean, laikotasunak, nortasun sozial neutrotzat hartuta, demokraziaren ikuspegi estetikoak izaten jarraitzen du. Aniztasuna oso mugatuta gelditzen da. Gutxiengo hizkuntzak toleratzeko guneak onartzen dira. Gutxiengo guztiak berdintzatzen dira, inolako bereizketa kontzeptualik gabe, eta horrek agerian uzten du aniztasunaren muga. Ez da planteatzen norberak bere nortasuna garatzeko biderik. Laikotasun kontzeptuaren bitartez bilatu nahi da batasun nazionalaren oinarria den homogeneotasun soziala. Finean, hizkuntza frantsesak Estatuaren erlijioa izaten jarraitzen du. Hizkuntzaren aferak laiotze prozesu sakon baten premian jarraitzen du.

Zer eskatzen dute irakasleek?

Prestakuntza beharra nabaritzen da irakasleen artean, eta hainbat gabezia ikusten dira. Hasteko, irakasleek ez dute etorkinen jatorrizko kultura eta ohituren berri. Etorkinek ere ez dute hemengo hezkuntza sistema ezagutzen, eta komunikatzeko ere arazoak dituzte askok. Alde horretatik, itzultzaileen beharra ikusten da. Laguntza pertsonal gutxi edo batere ez dagoela aipatzen dute askok, batez ere euskara ikasteko eta ikasgaiak gelan jarraitzeko. Oztopo hori gainditzeko material didaktikoen beharra ere aldarrikatzen da.

Batzuek hasi dira beraien kabuz material didaktikoa prestatzen, baina bakoitzak bere aldetik. Material didaktiko horren berri ematea eta trukatea egokia izan liteke, denen onerako izango baita, eta bereziki ikasleen onerako.

Ingelesa eta beste hizkuntzak ikasteko material ugari eta modernoak dago:

teknologia berriez baliatuz norberak bere kabuz ikasteko metodoak, esate baterako. Euskararen, kasuan, horrelako materiala faltan botatzen dute irakasle batzuk. Ikasleentzat erakargarria eta baliagarria izango litzatekeela uste dute.

Dena dela, zenbait irakasleren iritziz, material didaktikoak baino garrantzi handiagoa du irakasleen jarrerak. Irakaslen eta ikasleen arteko harreman afektiboak eragin handia du haur horien integrazioan eta ikasketetan.

Euskararen irakaskuntzak ere kezka sortzen du. Sarritan haur etorkinak A erdura bideratzen dira. Jakinik eredu horrek ez duela euskalduntzen, haur horiei hemengo ikasle elebidunek dituzten eskubideak ukatzen zaizkie, hizkuntza bat ikastea ukatzen baitzaie, eta horrekin, hobeto integratzeko aukera.

Zer eskatzen dute etorkinek?

Zer eskatzen dute etorkinek? Zer eskatzen diote hemengo hezkuntza sistemari? Galdera hori planteatu zuen Adarra Pedagogia Erakundeak *“Immigrazioa eta kultura arteko elkarrizketa”* izeneko jardunaldietan.

Neli Miguel Silva brasildarrak bi urte 1. erdi daramatza Mungian, eta 4 eta 13 urteko alabak ditu. Brasilen ikasturtea amaitutakoan iritsi ziren hona alabak, otsailean, eta iraila bitartean egokitze prozesu bat eduki zuten ikastetxean. Horrek asko lagundu ziela dio. Irakasleekin eta lagunekin komunikatzea funtsezkoa dela dio Neulik eta alabak esaten diola euskara ikasi behar duela integratzeko eta besteen mailara iristeko.

Bere alaben ikastetxean hemengo eta kanpoko haurrak ez dituzte banatzen, gela berean biltzen dituzte denak, eta hori hobea dela dio. Irakasleei haur etorkinen aldaketa onartzeko eskatzen die: *“Haurrak asko fijaszen dira, eta konturatzen dira irakasle batek entzuten dien edo ez, gauzak beste modu batera*

azaltzen dizkien edo ez. Eta horrek eragin handia du haurren motibazioan, ikasketetan eta integrazioan”. Neuli Helduen Eskolara joaten da, eta horrek ere izugarri lagundu diola onartzen du, bai bera integratzeko eta bai alabei eskolako lanetan lagundu ahal izateko.

Bubu Zolano angolarrak errefortzu edo laguntza eskolara eskola orduz kanpo emateko eskatzen du. *“Bestela, eskolako orduetan gelatik ateratzen baldin badira, ordu horiek ere galdu egiten dituzte”*. Horrekin batera, haur etorkinak desberdin ez tratatzeko eskatzen du, eta baita Joel Acclassato frantsesak ere. Aurreko belaunaldikoak afrikarrak izan arren, bera Frantzia jaio eta hezi zen, eta egun Euskal Herrian bizi da. Bera frantsesa sentitzen da, hori delako ondoen ezagutzen duen kultura. Bere iritziz, haur etorkinek ez dute ez aparteko tratuerik ez irakaskuntzarik behar. *“Irakasleek paternalismoa alde batera utzi behar dute eta beste kulturak balioetsi behar dira, bai eskolan eta bai eskolatik at”*.

Eusko Jaurlaritzak artatzeko plana

EAEko ikastetxeetan gero eta etorkin gehiago daudela ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak **ikasle etorkinak artatzeko programa** egin du. Beronen helburu orokorra ikasle etorkin guztien eskola integrazioa lortzea da, integrazio sozial eta kulturala bultzatuz, euren hizkuntza, kultura, gizarte maila eta jatorria alde batera utzita.

Ikasle etorkinen hezkuntza beharrak hiru eremutan sailkatzen ditu programak:

1- Behar linguistikoak: ikasleak hizkuntza ofizial biak ez baldin badakizki, ikastetxeak horiek ikasteko baliabideak eskaini beharko dizkio: hasteko, eskolatuak eredu oinarrizko hizkuntza ikastea bermatuko da, eta gero, beste hizkuntza ikasten hasiko da. Helburua bi hizkuntza ofizialetan ahoz nahiz idatziz menperatzea da; eta lagungarri moduan ikastaro trinkoak eta udako egonaldiak ere egingo dira. Edozein modutan, ikaslearen baldintzen eta ezaugarrien arabera egokituko dira ereduak.

Ereduen aukeraketa egiterakoan, Haur eta Lehen Hezkuntzan B eta D ereduetan ikastea gomendatzen da. DBHren kasuan, egokituz jotzen da B ereduaren eskolatzea, baina kasu horretan beharrezkoa izango da euskararen curriculum egokitzapen bat egitea. Ingurunea erabat euskalduna bada, D ereduaren hoberena da.

2- Curriculumaren ingurukoak: behar nagusiak bi dira: Euskal Herriko geografia, historia eta kulturari buruzko edukiak ezagutzea eta norberaren adinaren arabera oinarrizko hizkuntza instrumentalak. Eduki horiek ikasteko, zenbait kasutan derrigorrezko edukiak murriztuko dira; bestetan jarduerak didaktikoak erabiliko dira; eta baita ikaskuntza pertsonalizatua ere.

3- Tutoretzakoak: ikasle etorkinek tu-

etorkinak egin du

tore bana izango dute lehen bi urtetan eta haren lana haurren integrazioa erraztea izango da.

Irakasleen prestakuntza

Irakasleei aholkularitza emango zaie ikasle etorkinen harrera, arreta eta jarraipenari buruz Berritzeguneetako aholkularien bitartez. Era berean, Hezkuntza Sailak diru laguntzak gehitu egingo ditu.

Baliabide materialei dagokienez, Berritzeguneetan kultura aniztasunarekin zerikusia duten gaiak eta materialak berrikusi eta osatuko dira. Material didaktikoak egiteko gomendioak ere emango dira, hizkuntza ez arrazista eta ez baztertzaila erabiltze aldera. Haur Hezkuntzan ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia ikasteko materialak egitea bultzatuko da, eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko zikloetan ikasleen irakurketa eta idazketa bizkor ikasteko materialak prestatzea ere bai. Hiztegi elebidunak egitea ere bultzatuko da, etorkinek euskara errazago ikasteko xedearekin.

Harrera plana

Hartutako neurriez gain, ikastetxe bakoitzak ikasle etorkinentzat harrera plan bat egitea planteatzen da. Plan horretan, ikastetxeak proposatzen dituen hezkuntza jarduerak antolatuko lirateke, betiere ikasle etorkinen integrazio osoa lortzeko.

Nola egin, ordea, harrera plan hori? Hezkuntza Sailak, Berritzegunekin eta baimena duten irakasleekin lankidetzan, harrera planaren eredu bat prestatu du. Baina eredu bat izanik, gero ikastetxe bakoitzak berea egokitu beharko du. Aipatu plana egiteko zenbait orientabide ematen dira eta besteak beste hor zehazten da zer eta nola egin behar duen zuzendaritza taldeak, irakasle taldeak, zikloko irakasleek, irakasle tutoreak, hizkuntza indartzeko irakasleak eta abar.

“Kultura arteko hartu-emanak Euskal Herrian” masterra



Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultatean kultura artekotasuna lantzeko mintegi bat sortu zuten orain dela lau urte inguru, eta horren haritik, datoren ikasturte aurrera master bat eta aditu ikastaro bat eskainiko dute: **Kulturaren arteko hartu-emanak Euskal Herrian**. Julen Arexolaleiba zuzendariak eman dizkigu xehetasunak.

Zer berritasun dakartza master honek?

Lehenengo eta behin, gai horren inguruan unibertsitatean euskaraz eskaintzen den lehen masterra da. Eta bigarrenik, teknologia berrien bitartez landuko da %75.

Nori zuzendua dago?

Bi hartzaile mota aurreikusten ditugu: batetik ikasketak bukatzen ari diren unibertsitateko ikasleak, eta bestetik lanean dabilen jendea. Oro har, etorkinekin hartu-emanetan ari direnak edota aritzeko formazioa jaso nahi dutenak.

Eskaintza bikoitza da: masterra eta aditu ikastaroa. Zein da bien arteko desberdintasuna?

Aditu ikastaroak 20 kreditu ditu eta

masterrak 50 kreditu, eta hemen Karrera Amaierako Proiektua egin behar da. Lehenengo ikasturte bakarrean egin liteke, eta bigarrena bitan. Edonola ere, denbora horiek gutxienekoak dira. Gero, bakoitzak luza lezake.

Antolaketa aldetik, biak dira malguak, derrigorrezko moduluez kanpo koak hautazkoak baitira; eta beraz, bakoitzak gustuko dituenak aukera ditzake.

Zein eduki jorratuko dira modulu horietan?

Etorkinak eta hezkuntza; hizkuntza(k) irakasteko didaktika integratua; etorkinak komunikabideetan; etorkinak eta lana; etorkinak vs Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa; Euskal Herriko biztanleria atzo eta gaur, migrazio-aldien irakaspenak; eta gogoeta saioak, hitzaldiak, mahai inguruak, ikus-entzunezkoa, foroak...

Zertan lagunduko du masterrak?

Erantzun beterik ez dago gai honen inguruan. Adibidez, zer gara euskaldunak? Anekdotak txiki bat? Egoera berrira egokitu behar dugun eta baimena eskatzen egon behar dugun gutxiengo gutxiagotu bat? Ala ez garen hori eta izan nahiko genukeen horretatik diskurtso maximalista bat egin behar dugu? Nola da gure harrera gizartea? Nola ikusten ditugu etorkinak? Erantzun beterik ez dago, eta galdera horiek agertuko direnez, bidea egiten lagunduko digute.

Informazio gehiagorako:
julen_arexolaleiba@huhezi.edu

G A I A
Etorkinak
aniztasuna eta elkarbizitza


G

iñaki martinez de luna

Soziolinguistika Klusterreko
lehendakaria



Hizkuntza gutxituko hiztunak
izanik, larria da eskola
curriculumean soziolinguistika ez
egotea.



I aki martinez de Luna

E

Etorkinekiko kezka puztuta dagoela inuditzen zait, alor batzuetan.

Hizkuntza ikuspegitik, beste hainbat alderdik dute lehentasuna, nire ustez. D ereduan ikasten dutenen hizkuntza gaitasuna mugatua den artean, eta erabileraraino iristen ez den artean, zergatik kezkatu euskara zer den ere ez dakitenekin?

Martxoan sortu berri da Soziolinguistika Klusterra, alor horretan lan egiten duten erakunde eta norbanakoak biltzen dituen. Eta galderak zientoka sortu dizkigu: zer arraio da Klusterra? Zer eskainiko dio euskararen normalkuntza prozesuari? Eta hezkuntzari? Nola ikusten dute soziolinguistikako adituak eskolak egiten duen lana euskararen transmisioan? Gureak salbaziorik ba al du?

Erantzunak I aki Martinez de Luna gasteiztarak eman dizkigu. Klusterraren lehendakari izateaz gain, beste hamaika gauza ere bada I aki: HIZNETeko zuzendari, Eusko Ikaskuntzan LINGUANET ikastaroaren zuzendari, Leioako Unibertsitatean soziologia irakasle... eta beste hainbat ardura, eguna ilunduta etxeratzen dutenak.

Soziolinguistika Klusterra sortu berri duzue. Klusterrak zer esan nahi duen azal ezazu.

Klusterraren ideia Amerikatik dator, enpresen mundutik. Berezitasuna zera da: diseinu malgua duela, eta horregatik aproposa dela tamaina eta jatorri askotariko taldeak eta adituak biltzeko (ez du eraketa zurrunik, institutu batek duen bezala). Bazkideek esaten dute zer lan ildo jorratu nahi dituzten, eta horien inguruan hainbat batzorde antolatzen dira; kide bakoitzak batzorde ezberdinetan parte har dezake, premien edo interesen arabera. Klusterrak badu bihotz edo motor bat ere, dena koordinatzen duena. Motor horrek batetik kideek bultzatu nahi dituzten lan ildotan egiten du lan, eta bestetik kanpoan zer berri dagoen ikusi eta bertara ekartzeaz arduratzen da.

Euskal Herrian bada kluster mordoska. Ezagunena eta aitzindarietako bat Ezagutzaren Klusterra da.

Soziolinguistika Klusterraren kasuan, zer eratako partaide eta norbanakoak dira kide?

Partaide izateko aski da izena ematea, erabat zabala da klusterra. Batetik pertsona solteak daude, arlo horretako interesatuak edo adituak, eta bestetik erakundeak: Elhuyar, Emun, Mondragon Unibertsitatea, EHUko sail batzuk, Nafarroako Unibertsitate Publikoa ere sartzeko bidean da, UEU, Eusko Ikaskuntza... Erakunde publikoei dagokienez, EAeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adierazi digu interesa dutela eta gure hausnarketa estrategikoan parte hartu nahi dutela. Bizkaiko Foru Aldundiarekin ere harremanak izan ditugu.

Orain proiektuaren berri zabaltzen ari gara, jendearekin harremanetan jarritz. Eta bestetik gure plan estrategikoa ari gara zehazten.

Zergatik ikusi zenuten halako antolamendu baten beharra?

Soziolinguistikan dauden premia batzuei oraindik ez zaielako erantzun: formazioa, ikerketa bultzatzea, dibul-

gazioa... Bestetik, Euskal Herrian soziolinguistika oso mundu aberatsa, dinamikoa eta indartsua da, eta hor zubi lana egiteko edo sare bat osatzeko premia ere bazegoela ikusten genuen. Nor bere lekuan zebilen, elkarren berri izan gabe, eta ezjakintasun horretan askotan baliabideak behar bezala ez dira aprobetxatzen, edo ekimen berriak modu bateratuan abian jartzeko aukera ere ez da bultzatzen, eta leku batean egiten diren ahaleginak beste batzuetan errepikatu egiten dira hortik gutxira. Aldiz, sarean lan eginez gero, sinergiak sortzen dira.

Egitura honek kideen lehia onartzen du, baina era berean proiektu bateratuak bultzatzen ditu. Konplexua ez al da mugak definitzea, zer den baten proiektua, zer den denen intereseko proiektua...

Bai, eta aurreko klusterretatik ikasitako praktika mesedegarri izango zaigu. Erakunde edo talde guztiek eskubide osoa dute klusterretik kanpo euren zereginekin eta proiektuekin aurrera egiteko. Klusterrak berak ez du inondik ere lehian sartu behar partaide batekin, bere lan ildoetan ez du zertan sartu behar. Klusterrak zerbitzua eman behar du, baina ez oztopo izan kide bakoitzarentzat.

Hizkuntzaren normalkuntza prozesuari zer eskaintzen dio Soziolinguistika Klusterrak?



Oinarri-oinarrizkoena dena: mekanismoak ulertzea, hasteko. Arazoari aurre egin ahal izateko, lehenengo arazo hori sortzen duten mekanismoak ulertu behar dira, ulertu zergatik gertatzen den hau edo zergatik ez den espero genuena gertatzen. Eta ulertze hori hainbat dimentsiotan landu beharko dugu: maila zientifikoan, dibulgazio mailan, edo kale mailan ere zer den jendeak jakin behar duena. Soziolinguistikaz formazio premia handia dago. Jendeak hizkuntzaren egoera zein den jakin behar du.

Bestetik klusterrak konponbideak ere bilatuko ditu. Ikerketa aplikatua da bultzako duguna. Alegia, egoera ikerituko da, gero horren aurrean zer egin erabakitzeko eta proiektuen bidez aurrerapausoak emateko.

Eta zer du eskaintzeko Soziolinguistika Klusterrak hezkuntza erakundeetara?

Ikerketa, gogoeta zientifikoa eta dibulgazioa tartean egonda, hor badago zer atera edo zer gauzatu material didaktikoetan. Bestetik kezka zehatzei erantzuteko ere sor daiteke elkarlana hezkuntza erakundeen eta klusterraren artean. "Zergatik ez dute neska-mutilek patio orduan euskaraz egiten?"; "bada, guk ikertutakoaren arabera hau xe da dakiguna", edo "ez dugu erantzunik. Nahi al duzue lan ildo bat sortzea horren inguruan?". Halako elkarlanak guretzat oso proiektu desiragarriak dira.

Datu
estadistikoak
interpretatzeko
gako batzuk
badaude, eta hori
da jendearen esku
jarri behar dena.

Bestela
frustrazioan
erortzen gara
askotan,
errealitatearen
irakurketa osoa
egiten ez
dakigulako

i aki martinez de luna



E

Soziolinguistika
Klusterarentzat oso
desiragarria da
hezkuntza
erakundeekin
elkarlana egitea.
Ikerketa, gogoeta
zientifikoa eta
dibulgazioa tartean
egonda, badago zer
gauzatu material
didaktikoetan.
Bestetik, kezka
zehatzei erantzuteko
ere sor daiteke
elkarlana

Jende arruntak hizkuntzaren egoera zein den jakin behar duela esan duzu, soziolinguistikaz formazioa falta dugula. Aldiz, egunkarietan noiznahi ikusten ditugu inkestak, eta eskolatan ere euskararen egoeraz hitz egiten da...

Escolatan hizkuntzari buruz lantzen dena gehienbat gramatika da, eta hori bezala beste hainbat alderdi hizkuntzalaritzari dagozkionak. Baina soziolinguistikaz apenas lantzen den ezer. Eskolan ez dugu inondik ikusi hizkuntza egoera soziala nolakoa den, zergatik dauden hizkuntza nagusiak eta baztertutako hizkuntzak, boterearen eragina... Eta hizkuntza gutxitu bateko hiztunak izanik, soziolinguistikaz formaziorik ez izatea hutsune handia da.

Hizkuntza bat jakiteak ez du esan nahi hizkuntza hori erabiliko denik. Hizkuntza bat erabiltzeko edo ez erabiltzeko baldintzak oso konplexuak dira, bai arlo pertsonalean, baita gizarte arloan ere. Eta mekanismo horiek guztiak ezagutu ezean, ez dago konponbidea bilatzerik. Soziolinguistika eskola curriculumetan sartu beharko da, bestela hurrengo belaunaldiek ere gureak bezain ezjakitun jarraituko dute. Ez da logikoa gramatikari "horrenbesteko" garrantzia ematea, eta hizkuntza gutxitu bateko hiztunak izanik soziolinguistikari lekurik ez ematea.

Egunkarietan datu estatistikoak kaleratzen dira noiznahi, alban iritzi oso aldeko eta oso kontrakoekin, eta azke-

nean jendeak nahastuta bukatzen du. Datu estatistikoak interpretatzeko gako batzuk badaude, eta hori da jendearen esku jarri behar dena. Bestela, frustrazioan erortzen gara askotan, errealtatearen irakurketa osoa egiten ez dabilgulako.

Batzuk frustrazioan erortzen dira gaurko egoerari soilik erreparatzen diotelako, alegia perspektiba falta dutelako, eta ahazten dutelako hizkuntza bat errekupearatzea prozesu luzea dela, hainbat belaunaldik bertan parte hartu behar dutela, eta beraz, ez dela soilik gure garaiko kontua.

Beste hainbat guraso eta irakasle ere frustratuta sentitzen da hurrek euskarara jakin badakitelako baina ez dutelako erabiltzen. Bada frustrazioa ez da ona, erruduntasuna ere ez, eta autoreruduntasuna are gutxiago! Erdararako joera hori esplikatzen duten arrazoiak egon badaude eta ez dugu frustraziorik sentitu beharrik egoera gustukoa ez dugulako. Egin behar duguna da jakin egoera halakoa dela, honegatik eta hartatik, eta ikusi zer egin beste pauso bat emateko.

Soziolinguistika curriculumean sartu behar litzatekeela aipatu duzu. Ikasgai bat izan behar al luke soziolinguistikak?

Egokialitzateke. Baina egia da egun irakaskuntzaren gain jartzen dela dena, eta ez dagoela alor guztiak irakasgai bihurtzeko modurik. Hala ere soziolinguistikaren eduki batzuk txerta daitezke beste ikasgaietan (Historian, esaterako), edo izan daiteke zehar lerro bat ere. Soziolinguistikak hainbat adar dauzka (ekonomia, psikologia, antropologia...). Fokatzerik zuzenena diziplina anitzekoa litzateke. Horrek esan nahi du eskolan hainbat ikuspuntutatik aipa daitekeela soziolinguistika, ez derrigorrez irakasgai bat bezala planteatuta.

Ikastetxei eskatzen zaien funtzioetako bat euskararen transmisioa da. Funtzio horri zer moduz erantzuten dio eskolak?



Oro har dezente ondo. Ahal den neurrian, eskolak bere funtzioa betetzen du. Beste gauza bat da guk zer-nolako espektatibak dauzkagun eskolaren ganjarriak euskara dela-eta. Oso argi izan behar dugu gauza bat: eskolak ezin dituela hizkuntza baten funtzio guztiak garatu. Adibidez, lagunarteko hizkera. Hori lagunarteak eman behar du, ez eskolak eta ez familiak. Horregatik da gizarte eragile guztien laguntza horren garrantzitsua.

Gainera, bere bilakaera historikoa kontuan hartuta, nik uste eskolak txukun betetzen duela bere funtzioa. Gaurko irakasleak belaunaldi erdaldunetakoak dira, eta beraz, euren mugak dituzte. Baina hori da daukaguna, eta horrekin egin behar dugu aurrera.

Benetako galdera beste bat da: zer gertatzen da eskola inguruan? Euskal Herri osoan D ereduko ikastetxeetan eskolaz kanpo kirol jarduna erdara hutsen betetzen du laurden batek. Hori D ereduan. Lehen pausoa eskolaz kanpoko jardura horiek euskalduntzea litzateke. Beste kasu batzuetan, hartzen diren begiraleak euskaldunak dira, baina gero haurrei ez diete euskaraz egiten. Kurioso da: zentroko helburuak eta printzipioak arlo batzuetan oso zorrotzak diren bezala, gero gurasoek antolatzen dituzten ekintza horietan badi-rudi ez dagoela ez helbururik, ez printzipio zorrotzik, ez ezer. Begiraleak kontratatzerakoan argi utzi behar zaie zein den ikastetxearen asmoa, heziketa aldetik, balio aldetik eta euskara alde-

tik. Eta hirurak landu ditzatela. Hizkuntzaren funtzio batzuk garatzeko horren garrantzitsua izanik erabilera, harrigarria da nola ez den zorrotz zaintzen.

Eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleek zer formazio behar lukete alde horretatik begiratuta?

Hasteko, eskakizuna behar dute. Kontratu duen erakundeak ez badizkie baldintza edo printzipio batzuk exijitzen, alferrik ari gara. Bestetik, azalpen batzuk jaso behar dituzte: ikastetxearen egoera zein den hizkuntza aldetik, zein diren helburuak eta beraz zertarako dagoen. Zenbait kasutan hiztegi egokia eskaini behar zaio, euskaraz nola esaten diren bere jarduerako hainbat hitz, hori gabe ez baita ziur sentituko. Babesa eman behar zaio hasiera-hasieran, eroso senti dadin.

Eskolaz
kanpoko
jardueratarako
begirale bat
kontratatzerakoan,
argi utzi behar zaio
zein den
ikastetxearen
asmoa euskararen
aldetik, eta
zertarako hartu
duten bera.
Kontratatzen
duenaren aldetik ez
badago
eskakizunik, jai
dugu.



i aki martinez de luna

E



Hizkuntza gutxituei dagokienez, ez dut itxaropen handirik Europan. Estatuek osatzen dute Europa eta euren interesei egingo diete kasu, ez herrienei. Nik konfiantza Euskal Herriko gizartearengan dut. Herri eta gizarte mugimenduak izango dira etorkizuna, hizkuntzararako bezala beste edozein gauzetarako

Ikasgelatan jatorrizko hizkuntza askotariko gero eta etorkin gehiago dago. Egoera honen aurrean prestatuta al gaude euskara irakasteko?


Bai, alde horretatik etorkin bat bertako erdaldun bat bezala da, nik ez dut arazorik ikusten. Arazoa eskolaz kanpo ikusten dut: etorkinek euskara ikasteko premia sentituko dute baldin eta ikusten badute erabilgarria dela, balio duela. Markinan ez dute izango A eredurako hainbesteko joerarik, eta Bilbon edo Gasteizen bai. Guk berdin egingo genuke kanpoko herri batera joanda.

Ondo dago etorkinen kasua kontuan hartzea, esaterako eskola publikoak erdaldunen ghetto bihurtu ez dadin (eta etorkinak izan edo bertako erdaldunak, berdin). Baina iruditzen zait etorkinen gaia "puztuta" ere badagoe-la. Hizkuntzaikuspegitik, beste hainbat alderdik dute lehentasuna, nire ustez. Adibidez, D ereduan ikasten dutenen hizkuntza gaitasuna mugatua den bitartean, eta erabileraraino iristen ez den bitartean, zergatik kezkatu euskara zer den ere ez dakien batekin? Baliabideak modu emankorrean erabiltzeko kontua da. D ereduko neska-mutil baten euskara erabili ahal izateko askoz pauso txikiagoak behar ditu, ezer ez dakien batekin baino. Ni euskal hiztun komunitatean txertatzetik gertuen daudenetan zentratuko nintzateke. Ondo dago etorkinez kezkatzea, baina gauza bakoitza bere neurrian.

Ikastetxe asko dago Hizkuntza Normalkuntza Planean murgilduta. Zer iritzi duzu Normalkuntza Planez?

Ezagutzen dut pixka bat, eta lehen aipatu ditugun katebegi guztiak lotzea lortzen du: ezagutza zientifikoa garatzea, eta gero dibulgazioa egitea (Ulibarri programaren bidez). Horixe da justu klusterraren filosofia: ezagutza landu behar da, ikertu maila zientifikoa, baina gero horren hedapena egin. Eskolen kasuan Hizkuntza Normalkuntzaren inguruko sare horrek oso ondo betetzen du eginkizun hori. Ekimen miresgarria eta txalogarria da, eta gutxiegi ezagutzen dena.

Unibertsitateek jakin al dute soziolinguistika arloan euskal gizartearen premiei erantzuten?



Zoritxarrez unibertsitatea oso atzetik joan da gizartearekin alderatuta. Pentsa hizkuntzarekiko kezka noiz sortu zen. Historiako azken sasoi hau hartzen badugu, 60ko hamarkadan sortu ziren lehenengo ikastolak. Garai hartan egia da ez geneukala unibertsitate propiorik, baina unibertsitate pribatuetan ere ez zegoen ezer. Gaur egun ere soziolinguistikaz, bete-betean, ez dago gauza handirik: unibertsitatean goi mailako jende gutxi dauka honen berrikerik edo honekiko interesik. Udako Euskal Unibertsitatea izan da soziolinguistikari era jarraian kasu egin dion bakarra.

Aldiz, gizarten, errealitatean, soziolinguistika oso



aberatsa da. BAT soziolinguistika aldizkaria bera, edukiz maila zientifikoko aldizkaria da, baina ez zuen unibertsitate batek sortu, herri ekimenetik sortu zen. Unibertsitateak ez die behar bezala erantzun gizarteak zeuzkan premiei.

Beste hizkuntza gutxituengandik behar beste ikasi al dugu?

Kanpoan badago zer ikasia eta nondik ikasia. Nik uste euskaldunok bakarrik garenaren inpresioa dugula eta geure zilborrari begiratzen diogula. Baina munduan ere hizkuntza gutxituen inguruan dagoen dinamika izugarria da. Hori garbi ikusi zen duela 2 urte Bartzelonan egin zen nazioarteko kongresu batean. Batek hurbiletik ezagutzen duenean, oso harrituta gelditzen da.



Zein hizkuntza gutxitu dira zure erreferenteak?

Ez naiz eredu bati atxikitzearen zale. Modu mekanikoan jokatzeko arriskua dago (eta euskararen kasuan hala ere egin izan da batzuetan). Kanpoan zer dagoen jaso bai, baina gero galbaketik pasa behar da eta egokitu. Hori da klusterraren funtzio garrantzitsuetako bat: kanpoan zer dagoen ikusi eta ekartzea, eta hemen egiten dena kanpoan zabaltzea.

Nola ikusten duzu hizkuntza gutxituen egoera Europan kokatuta?

Ez dut itxaropen handirik. Estatuak osatzen dute Europa eta euren interesei egingo diete kasu, ez herrienei. Nik konfiantza Euskal Herriko gizartearengan daukat. Kanpotik aldeko haizea datorrenean baliatu egin beharko dugu, baina kontrakoa datorrenean guk eutsi beharko diogu, kanpotik ez digute ezer konponduko.

Baikorra al zara gizartearengan, aurrera begira?

Bai. Baina gizartea dinamizatu egin behar da. Horretarako ezinbestekoa da zer gertatzen ari den ondo ulertzea eta ezagutaraztea, jendeak parte har dezan eta behar diren pausoak eman ditzan. Aktibismoa oso garrantzitsua da, herri eta gizarte mugimenduak klabeak dira, eta ez hizkuntza munduan soilik, baita, esaterako, demokrazian ere. Gainera, aukera handiak daude. Duela urte batzuk imajinatzen ez genituen mugimenduak jada sortuta daude (Mundu Mailako Foroa, esaterako). Niretzat hori da etorkizuna, hizkuntzarentzat bezala beste edozein gauzetarako.

Zoritxarrez unibertsitatea oso atzetik joan da gizartearekin alderatuta soziolinguistika arloan. Euskal Herrian soziolinguistika oso aberatsa da eta gizarte mugimenduek indar handia dute. Aldiz, unibertsitateak ez die behar bezala erantzun gizartearen premiei



Euskal arte garaikidea gelara

Zumeta Villabona-Amasako gazteekin

Euskal artisten balioa zailantzan jartzera ez da inor asko ausartuko. Eskola gutxitan oinarritzen dute plastikako eskola arte garaikidean, ordea, eta are gutxiagotan gaurko euskal artistengan. Jose Luis Zumetak New Yorken jarri ditu erakusketak. Zumeta bera ikasgelan izan da, gaztetxoekin mural bat egiten. Halakoxe lu-xuak ditu herri txikia izateak, artistak unibertsalak bezain gertukoak ditugula. Geu gara, ordea, dugun zortiaz jabetzen ez garenak.

Villabona-Amasako Emio-bea institutuan euskal artista garaikideak lantzen dituzte hautazko ikasgai batean. Aurten 13 urteko 20 ikasle inguruk jardun dute. Itziar Goñi irakasleak azaldu digu esperientzia.

Plastikako eskolen planteamendua aldatzeko beharra sumatu zuen Itziar Goñi irakasleak. Batetik, zatika lantzen direlako beti gaiak (gaur ehundurak, hurrengoan perspektiba, beste batean kromatikoak...), eta gero, atalka ikasitako ezagutza horiek denak egoera erreala batean aplikatzen ez direlako.

Halaxe dio Itziar Goñik: *“Hainbeste eduki ikasgarazi dizkiozunez ikasleari, gero mural bat edo antzeko egoera bat ekartzen diozunean ez daki programazioan ikasitakoa egoera errealekin identifikatzen. Ikasleek esaten dizute: ‘honetaz ez dakigu ezer’. Eta eduki horiek atalka lantzen ari garenean, ez diote zentzurik aurkitzen, ‘zer txorakeria, zertarako da hau?’. Baina artelan bat egitean ikusten diote benetan zentzua alderdi bakoitzari”.*

Bestetik, Itziar Goñiren esanetan, Plastikako eskoletan ez zaie tokirik egiten bertako artistei eta obrei. *“Van Gogh irakasten dugu, eta aldez, eskolan ez dugu hitz egiten euskal artistei buruz. Gaurko euskal artisten unibertsaltasuna geletara ekarri behar dugu. Behingoz guregan ditugun zenbait to-*

piko utzi behar ditugu, eta busti, beti gauza bera irakasten ari beharrean eskoletan, errazkeriaz”.

Hala, bururatu zitzaion proiektu bat egitea euskal artea (eta gainera, garaikidea) eskolara ekartzeko. Obraz gain, artistak eurak ere ekarriko zituen gelara, eskolan landutako eduki guztiak koadro batean kontzentra zituzten. *“Era berean, ikasleek ezagut dezaten unibertsaltasun hori, artistak duen hunkipen edo sentimendu hori, nola pentsatzen duen, nola egiten duen “bozeto” edo zirriborro bat, koloreak nola erabiltzen dituen... Ikasleek izan dezatela kontaktu bat artistarekin”.* Euskal artea espresuki lantzeko, hautazko ikasgai antolatatu du Itziarrek. Hauxe da ikasgai horretan aurten egindako proiektua.



Jose Luis Zumeta eskolara ekarriz ikasleek zuzeneko kontaktua izan dute artista-rekin eta ikusi dute nola pentsatzen duen, nola egiten duen zirriborro bat, nola erabiltzen dituen koloreak...

Eskolako pasabideak, Zumetaren kolorez

Zumetarekin hastea pentsatu zuen Itziarrek. Horrela, lehenik Kursaalean egindako erakusketara eraman zituen ikasleak. "Bidaideak" izeneko erakusketan, Zumeta, Goenaga, Ruiz Balerdi eta Mendibururen lanak zeuden ikusgai. "Ondo erreparatu, ea zein gustatzen zaizkizuen, zein trazu landuko genukeen gelan" esan zien ikasleei. "Nik ezer esan gabe konturatu ziren Zumeta zela hurbilenekoa, eurengana hobeto iristen zela. Kontaktua hori izan zen; eta hitz egin genuen, Zumetak dohain duen hurbiltasun hori nola lortzen duen, zer gauzaren konbinaketaz, zer den ikusleei sortzen diena...". Zumeta eta haren lana hobeto ezagutzeko bideoetara zein liburuetara jo zuten gero.

Ikasturtean landutako lanaren ondoren, gauza bakarra falta zitzaien: Zumeta bera ezagutzea, eta margolan bat egiteko prozesua bertatik ikusi eta parte hartzea. Baina zer egin? Eskolako hormei erreparatuta aurkitu zuten erantzuna. "Gure eskolako pasabideetan hormak oso hotzak dira, eta nola bete pentsatu genuen. Zumeta ekarri, eta egun bateko lanean mural bat osa-

tuko zuten, pasabidean jartzeko".

Goiz eta arratsaldeko lanean osatu dute, hasi eta bukatu, murala. Hiru panel erabili dituzte, 1'22 x 2'44 metrokoak. Zumetak panel bakoitza 6 zatitan banatu du, eta hartara ikasle bakoitza zati bat osatzeaz arduratu da. Gero, zirriborro bat egin, eta ikasleek gustukoa dutela ikusita, arkatzez muralera pasa eta ikasle bakoitzari zirriborroaren zati bat eman dio, osa dezan. Koloreen konbinazioa eta trazua landu dute ondoren. Zumetaren esanetan, "esperientzia nahiko erraza da eta gustura ari ziren dira gazteak. Ahalegina erraztu ere egiten zaie. Marrazkia egiten dut nahiko mugatua, garbia eta kolore lauekin, konplexua jartzen baduzu igual ikasleek atzera egingo lukete-eta. Kolore biziak eta alaiak, gustura ari zeko modukoak".

Abstrakzioa maite

Ikasleak gustura daude egindako lanarekin, nahiz eta lotsa pixka bat ere sentitu gero pasabidean denek ikusiko dutelako. Marrazketa mota hau omen da, abstraktua, gehien gustatzen zaiena. Itziar Goñi irakaslearentzat oso garrantzitsuak dira ikasleek aipatu dituzten bi alderdiok. "Ohituta daude espazio txiki batean lan egiten beti. Gaurkoa kontraste handia izan da, bizi egin dutelako espazio handi batean lanak zer sentimendu sortzen dien, bai



euren buruari eta baita beste ikasleei ere, besteren aurrean barregarri sentitu diren edo ez... Neurri handiko espazioa bereganatu dute".

Abstrakzioari dagokionez, adin honetan (13 urte) omen daude abstrakzio maila bereganatzeko garai onenean. "Arrazionalitatea sartzen hasten zaie, eta adin horretan abstrakzioak eta simbolismoak pisu handia du". Hurrengo urtean ikasleak 3. mailan egongo dira, ordea, eta marrazketa teknikoak dator. "Abstrakzioko edukietara iritsi ahala, berriro eduki formal batzuetara itzultzen dira. Beti formalismo batzuetan erortzen gara, jainkozko formalismo batzuetan, eta ikasleei abstrakzio hori ez diegu ateratzen". Gauzak hala egonagatik, hautazko ikasgai jarraituko dute hainbat euskal artista lantzen. •





Desberdinak al dira herrietako eta hirietako ikasleak?

Horren nabarmenki? Zertan? Nola?



Iaki MARTINEZ

Escola orientatzailea

Supergaitasun eta jokabide modulua

Nafarroako Heziketa Berezirako Baliabide Zentroa

Ikasketaren garapenean hurrenbeste faktorek eragina duten lan honetan, ikasleek dituzten ezaugarri orokor batzuk aipatu genitzake oso labur: gaitasunak, interesak eta trebetasunak. Gaitasunak eta trebetasunak era normalean banatuta daudela onartzen badugu, hiztegi egin dezagun interesez segidan.

Hurrengo lerrotan nire esperientziaren ondorio batzuk argitzera moa.

Nire ohiko lan egoerari “esker” (behin-behinekotasuna), azken urteetan zenbait institututan lan egitea egokitu zait, orientatzaile gisa. Institutu horiek ezaugarri desberdinak zituzten, noski, eta ezaugarri horiei egokitzen saiatzen nintzen, urtero ikastetxez aldatzea egokitu zaien hainbat langileren ildotik. Ondorioz, ikastetxe bakoitzean ikasketa orientaziorako prozesu desberdinak jarri izan ditut martxan, egoerara egokitze aldera. Kontuan hartzen nituen populazioaren ezaugarriak, ikasle kopurua, tutoreen inplikazioa, ikastetxearen plangintza, hizkuntza ereduak... eta hiria ala herria izan.

Dena den, bada beti aplikatu dudan tresna bat: interesen test ezagun bat pasa izan dut 15-16 urteko gazteen artean (DBHko 4. mailan edo BBBko 2 mailan). Hain zuzen ere, Perez Yusteren (BADyG atalekoa) “Lanbide lehentasunak edo interesak. Goimaila” izeneko testa. Ezdugu hemen eztabaidatuko tresnarik egokiena den edo ez, ezta ikasketa orientazioaren prozesuan eta beste tresna eta lan batzuen artean betetzen zuen funtzioa ere. Test hori prozesuaren urrats bat baino ez zela esango dugu, eta ikastetxe guztietan prozesu osoak askoz ere sakonagoa izan nahi zuela (ez dakit noraino, baina ahaleginak egiten ziren horretan).

Bost urtean jasotako datuak gorde ditut, eta horiek guztiak orain bilduta, analisi txiki bat egiteko aukera eman dit.

Testaren ezaugarriak

50 galdera egiten zaizkio ikasleari, bere lanbide interesei buruzkoak. Galdera bakoitzak lau aukera dauzka erantzuteko, eta ikasle bakoitzak 0, 1, 2 eta 3 puntu eman behar dio aukera bakoitzari, gutxien gustatzen zaionetik gehien gustatzen zaionera.

Erantzun guztien batuketan multzoa egiten da eta ikasle bakoitzak 13 puntuazio multzo ateratzen ditu 0 eta 48 (multzo bakoitzean lor daitekeen puntuaziorik altuena) puntuazioaren artean: Hauexek dira:

1. Zientzia Zehatzen Ikerketa (ZZI)
2. Giza Zientzien Ikerketa (GZI)
3. Aplikazio tekniko-zientifikoak (ATZ)
4. Artistikoak (ART)
5. Musika (MUS)
6. Geografia-Historia (GHI)
7. Literatur filologikoak (LIF)
8. Ekonomia eta enpresa ikasketak (EKE)
9. Informatika (INF)
10. Hezkuntza (HEZ)
11. Medikuntza laguntzak (MEL)
12. Harremanetarako eta pertsuasiorako ekintza publikoak (HPE)
13. Arriskua-Ekintza (ARE)

Ikasle bakoitzaren puntuazioekin bi irudi egin daitezke: bata puntuazio absolutuekin (0 eta 48ren artean), eta bestea taldearekiko puntuazio erlati-

boekin. Horretarako, ikastetxearen erreferentzia erabiltzen da. Hala, zentil batzuen puntuazioa kalkulatu nuen (2, 6, 15, 30, 50, 70, 85, 94 eta 98) eta, horrela, ikasleek bazekiten zein bi puntuazioen artean kokatu behar zuten beren puntuazio absolutua. Horrela azaltzen nien ikasleei, eta egin ere bai. Kalkulu horrek aukera ematen dio ikasleari zera jakiteko: ea bere puntuazioa altua (adibidez, Musika arloan) bere aukera personalari zor dion (zentil altu batekin adierazita) edo taldearen ezaugarriekin (adibidez, adinari). Azken kasu horretan zentil baxua edukiko luke. Zentilen balioen emaitzak zeraren menpe daude: tarte bakoitzaren barruko puntuazio zuzenen banaketa uniformearen menpe.

Aplikazioaren baldintzak

Esan dudanez, testa hainbat eskolatan aplikatu zen (den-denak ikastetxe publikoak eta, noski, mistoak):

1. Iruñeko institutukoak BBBko ikasleak ziren. Beraz, aukeratutako ikasleak ziren, 8. maila gaindituta zeukatena.
2. Berako institutuan Irakaskuntza Ertainen Erreformako ikasleak ziren. Lanbide Heziketako 1. mailako ikasketak egiteko aukera bazegoen, baina go-



gora dezagun IEEen sartzeko ez zela ezinbestekoa 8. maila osoa gainditua izatea. Dena den, hori zen zonalde herritar horretako institutu bakarra. Nafarroako eskolatzeko maila kontuan hartuta, 8. maila bukatu zutenak institutuan zeudelakoan nago. Zehazki Gizarte Bermeko ikasleak lau ziren. Beraz, ikasle horiek aukeratu gabekotzat hartu ditut beti.

3. kasuan bi ikastetxe ziren: herri handietatik urrun egoteagatik DBH osoa eskaintzen duten ikastetxeak. Oso txikiak, zenbakiei begiratzen badiugu (11 eta 5 ikasle).

4. ikastetxea Gasteizko Ekialdea ikastetxea zen, euskaldun hutsa eta 700 ikasle inguru zituena.

5. ikastetxea Baztan bailarako Lekaroz-Elizondo institutua zen.

Aukeratu gabekoak diogunean kontuan izan behar dugu ikasle guztiak

ez direla iristen 4. mailara.

Analisi honetan ez ditut aintzat hartu testa urte desberdinetan pasatzeak sor ditzakeen desberdintasunak.

Probaren baliotasunari dagokionez, nik egin behar ditudan analisiak egiteko propio sortu den proba ez dela esan behar da. Proba hau estandarizatu da eta lehenago sortua, hain zuzen ere, DBHko etapa ezarri baino lehen argitaratutako proba bat baita. Gainera, unibertsitateko jarduerekin eta ogibideekin daude lotuta 13 lan arloetatik 6 gutxienez. (Proba hau Batxilergo Bateratu Balioanitzean -BBB- erabiltzen zen gehienbat).

Azken gauza bat: proba hau gaztelaniaz pasatu dut ikasleen artean. Ez dago euskaratuta eta ez dago arlo honetan euskaratutako antzeko probarik. Denok dakigu zein egoeratan gauden euskaraz lan egiten dugun guztiok. Bada,

Ikasketa orientazioarako prozesuak jarri izan ditut martxan, ikasleen lanbide interesak eza-gutzeko. Bildutako datuekin analisi txiki bat egin dut.

Ikas urtea	Hiritartasuna (i) edo Herritartasuna (e) Biztanle kopurua	Ikasketa maila	Hizkuntza ereduak eta ikasle kopurua
1994/95	Navarro Villoslada, Iruñea (i) 191.000 biztanle	BBBko 2. maila (aukeratutako ikasleak)	A, G (237) eta D (52)
1995/96	Toki Ona, Bera (e) 5.000 biztanle	IEEko 2. maila (ia aukeratutako gabeko ikasleak)	A (21) eta D (38)
1997/98	Erronkari (e), 1.500 biztanle Zaraitzu (e), 1.400 biztanle	DBHko 4. maila (aukeratu gabeko ikasleak)	A eta G (5) A eta G (10)
1998/99	Ekialdea, Gasteiz (i) 210.000 biztanle	DBHko 4. maila (aukeratu gabeko ikasleak)	B (66) eta D (126)
2000/01	Lekaroz, Baztan (e) 7.900 biztanle	DBHko 4. maila	A (28) eta D (30)

i=hirikoa eta e=herrikoa

A ereduak: gaztelania hutsez eta euskarako ikasgai bat

D ereduak: euskaraz eta ikasgai bat gaztelaniaz

G ereduak: gaztelania hutsez

B ereduak: Matematika eta Gaztelaniaz gaztelaniaz eta gainerakoa euskaraz.

arlo psikopedagogikoan okerrago gabiltza.

Ikasketa orientazio unea iritsita, Euskal Herriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienetan edota guztietan ikasketa orientazioari ekin diete Orientazio sail guztiek. Egia esan, aspaldidanik dabilta lan horietan, baina Bigarren Hezkuntzarako ikasleek beste gauza asko dituzte buruan (azterketak, lagunak, jaiak, neska-mutilak...), eta otsailean eta martxoan aurrematrikulaziorako paperak ikusten dituztenean, izututa, orientatzailearekin edota tuto-

rearekin mintzatzerajoa ohi dira maiz.

Datuen trataera

Datu guztiak Excel eta SPSS izeneko programetan sartuta, konparaketa ugari egiteko aukera eman du, esan dugunez. Zehazki 13 lan arloak konparatu ditut hiru irizpideren arabera: herrikoana/hirikoana, aukeratutako/aukeratu gabeko ikasleak eta gaztelaniako ikasleak/euskarakoak. Beste aldagai garrantzitsu batzuk ezin izan ditut egin, datuak hasieran gelaka jaso nituelako eta ez kasuka.

Argi gera bedi hau ez dela dokumentu zientifikoa, nire datuen bilketa egin eta gero atera ditudan ondorio multzoa baizik.

Emaitzak konparatuta

Hona hemen datuen laburpen bat, desbideratzeak eta beste datu mota batzuk kenduta.

Ondoren, arlo bakoitzean (Informatika, Literatur filologikoa...) talde bakoitzak (gaztelaniakoak euskaldunekin alderatuta, edo herrikoak hirikoekin alderatuta...) ateratzen zituen no-

Aldagaiaren balio 1 (kopurua edo N)	Batez bestekoak	ZZI	GZI	ATZ	ART	MUS	GHI	LIF	EKE	INF	HEZ	MEL	HPE	ARE	Oso tara	Batez bestekoa
Aldagaiaren balio 2 (kopurua edo N)																
Aldagaien arteko kenketa balio absolutuetan																
Hiriko (480)	X	24,2	27,5	22,2	22	25,6	25,1	24,3	18,6	22,1	24,6	28	22,2	23,2		
Herriko (123)	X	22,8	23	25,6	25,2	29,9	22,6	21,9	19,2	24,3	22,7	25,5	19,2	25,7		
I Herriko-hiriko I		1,34	4,48	3,43	3,19	4,28	2,43	2,34	0,67	2,25	1,88	2,54	3	2,47	34,3	2,64
Aukeratuak (288)	X	24,2	28,3	21,7	22,9	25,3	25,6	25	18,9	21	24,6	28	22,7	22,5		
Aukeratu gabek (315)	X	23,7	25	24	22,4	27,5	23,6	22,7	18,5	24	23,9	27,1	20,5	24,9		
I Aukeratuak – Aukeratu gabek I		0,5	3,31	2,32	0,54	2,22	2,02	2,31	0,35	2,99	0,62	0,89	2,22	2,43	22,7	1,75
Gaztelania (290)	X	23,4	27	21,9	23,6	25,7	24,9	24,6	19,6	21,7	24,2	27,4	22,2	23		
Euskara (313)	X	24,3	26,1	23,8	21,7	27,2	24,3	23,1	17,9	23,3	24,2	27,6	21	24,4		
I Gaztelania- Euskara I		0,87	0,92	1,84	1,85	1,53	0,53	1,53	1,71	1,63	0,02	0,18	1,17	1,42	15,2	1,17

ZZI: Zientzia Zehatzen Ikerketa

GZI: Giza Zientzien Ikerketa

ATZ: Aplikazio tekniko-zientifikoak

ART: Artistikoa

MUS: Musika

GHI: Geografia-Historia

LIF: Literatura filologikoa

EKE: Ekonomia eta enpresa ikasketak

INF: Informatika

HEZ: Hezkuntza

MEL: Medikuntza laguntzak

HPE: Harremanetarako eta pertsuasiorako ekintza publikoak

ARE: Arriskua-Ekintza

ten batez bestekoak ateratzen nituen. Horrela, talde bakoitzaren lehentasunak zein ziren jakiten nuen (zein ikasle taldek duen nahiago arlo zientifiko tekniko: erdaldunek ala euskaldunek? Eta ekonomikoa? Herrikoek ala hirikoek? Hau da, arlo bakoitzean zeukaten batez besteko puntuazioa alderatzen nuen beste taldearekin. Eta hori, aipatutako hiru irizpideen arabera.

Gero, arlo bakoitzean (Informatikan, adibidez) bi batez bestekoen arteko kenketa egin eta zenbaki absolututan jartzen nituen. Horrela, arlo bakoitzean bi talderen arteko desberdintasuna neurtzea lortzen nuen: Informatikan dagoen desberdintasuna Arlo Artistikoan dagoen desberdintasuna baino handiagoa al da?

Bukatzeko, puntuazio absolutu horien batez bestekoak atera nituen. Horrek bi talderen arteko desberdintasunen batez bestekoa ematen du, hau da, irizpide bakoitzaren arabera norainoko desberdintasuna dagoen bi talderen artean. Zenbat eta zenbaki altuagoa izan, orduan eta handiagoak izango dira bi talderen arteko desberdintasunak (desberdintasunen batez bestekoa). Beraz, irizpide honek edo horrek gehiago alderatzen ditu ikasleak irizpide hark baino. Adibidez, hizkuntza ereduaren arteko desberdintasunak garrantzi handiagoa al dauka bizi garen bizilekuaren izaerak baino (herrikoa/hirikoak)?

“Erantzunak” aurreko orrialdeko koadroan daude.

Ondorioak

Aurreko analisia egin ondoren, oso ondorio politak atera ditut nik ikerketatxo honetatik:

1. Taldeak desberdinak dira, eta aukeratutako ikasleek aukeratu gabeko ikasleek baino nahiago dituzte arlo desberdinak. Ikus irizpide bakoitzean koloreztatutako bi lerroen puntuazioen arteko desberdintasunak binaka. Gehienetan puntuazioak desberdinak dira. Ia ez dago berdinketarik bikote horietan (berdinketa deitu diot puntu bat edo gutxiagoko desberdintasuna-

ri). Posible diren konparaketa hauetan, 13 arlo x 3 konparaketa = 39 konparaketetan, 9 berdinketa aurkitu ditut.

2. Berdinketa bat izanda, gerta daiteke arlo berebete beste berdinketa bat aurkitzea (Ekonomikoa-enpresa ikasketak eta Hezkuntza eta Medikuntza Laguntzak izeneko arloen hiru konparaketen artean bi berdinketa daude). Hau da, arlo horietan ikasleak orekatura agertzen dira, taldeak egiteko irizpidea bata edo bestea izan.

3. Hizkuntza ereduaren arabera desberdintasunak dira ahulenak (1,17). Handiagoak dira aukeratutako ikasleen artekoak (1,75). Eta handienak, nabarmenki, herrikoa/hirikoak eragiten dituenak (2,64). Puntuazioak txikiak dira, baina kasu honetan taldeek hartutako puntuazioen arteko desberdintasunen desbideratzeak dira. Puntuazio horiek gauza garrantzitsua adierazten digute: orientazio planak antolatzerakoan, kontuan hartu beharreko gauza dela bizilekuaren izaera: herrikoa edo hirikoak, “ikasle aukeratuak edo ez” izeneko irizpidea baino gehiago bederen, eta hizkuntza ereduaren arabera desberdintasunak baino are gehiago.

Arlo praktikokoan beste ondorio hauek atera daitezke:

1. “Lanbide Lehentasunak edo interesak” izeneko test honi etekin gehiago atera dakioke puntuazio tipikoak ataraz, eta horrekin informazio garrantzitsua eman dakieke ikasleei (beren taldean kokatzen baditugu, behintzat).

2. Ikastetxez ikastetxe ibiltzeari etekin handiagoa atera ahal diogu, nahiz eta egoerarik erakargarriena ez izan.

3. Ikastetxe handietan sortzen diren lan baldintzak batzuetan ez dira atseginak. Baina zenbakiak egiteko aproposak dira zenbaitetan. Badakit ikasleak ez direla zenbakiak, baina zenbakiak barruan ditugun susmo horiek ebatzeko balio dute batzuetan, horrelako ikerketatxo bidez. Neuk, adibidez, beti nabaritu dut herriko ikasleen eta hiriko ikasleen arteko desberdintasuna. Baina, ez nekien zertan zetzan, edota nire irudipen bat soilik ote zen. Orain,

Orientazio planak antolatzerakoan, kontuan hartu beharreko datua da bizilekuaren izaera; hots, herrikoa edo hirikoak izatea.

nire ustez, interesetan desberdinak direla frogatu diot neure buruari.

4. Ikasleen generoak (neska-mutilla) duen eragina ezagutzeak ere laguntzen du ikasketa orientazio planak gartzeko orduan, eskolaren, gizartearen edo dena delakoaren eragina orekatzeko. Alor horretan ibiltzen garenok urtero “mutilen” eta “nesken” ikasketen aukeraketa ez-naturala ikusten dugulako, eta zenbait arlotan oraindik banaketa artifiziala ikusten da. •





Udako Topaketak: gozatu, erlaxatu, ikasi

Ikastaroetan 650 lagunek eman dute izena, eta oraindik bada lekua zenbaitetan

V. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetan izena emateko epea bukatu da, ofizialki. Eskera handia izan da aurtengoan ere: hezkuntzaren inguruko 650 lagunek hartuko dute parte ikastaroetan (denak izango dira euskaraz). Topaketak uztailaren 1 eta 2an izango dira, Donostian, goiz eta arratsaldez. Matrikulazioa egiteko gogoz gelditu direnek, oraindik ere badute aukera zenbait ikastarotan.

Eskari gehien jaso duten ikastaroak termometro ona izan daitezke ikusteko gaur zer kezka edo interes nagusi dituzten hezkuntza munduko profesionalak eta gurasoek. Informatika ikastaro guztiak (sei zeuden aukeran) lepo bete dira, eta horien artean arrakasta gehien izan duena *"Musika ordenagailuz"* ikastaroa da. Bistan da *"Power Point"* eta *"Neobook"* programek ere leku berezia dutela ikastetxeetan.

Arazo zehatzak dira profesionalen kezka nagusi, dirudienez. *"Hiperaktibitatea eta arreta gabezia"* da, nonbait, ikasgelatan gehien nabari den ajea, ikastaro honek jende uholdea erakarri baitu. Gertutik jarraitzen dioten "ajeak" dira *"Idatzizko hizkuntzaren trebaketa prebentiboa"*, *"Estresa"*, eta urtero arrakasta duen *"Heriotza heziketan"* ikastaroa.

Gainezka nabarmen egin duten beste ikastaroak dira *"Ipuinak nola*

kontatu", *"Haurrentzako masajea"* eta *"Psikomotrizitatea"*. Eta horien guztien artean jenderik gehien bilduko duena, *"Modenako (Italia) 0-6 Udal Haur Eskolak"* ikastaroa izango da.

Zein ikastarotan eman dezaket oraindik izena?

Matrikulazio epea bukatu den arren, badira kopuru mugaturik ez duten ikastaro batzuk, edota oraindik lekua badutenak. Beraz, horietakoren bat egin nahiko bazenu, eman ezazu izena ahal bezain azkar. Ikastaro haue-
tan dago tokia:

- Modenako 0-6 Udal Haur Eskolak
- Antzerki clown-a
- Antzerkia nerabezeroan
- Baloiarekin taldean
- Historiaren txokoa

- Artearen txokoa
- Bost. Axola zait!

Izena emateko, jo gure web orrira (www.hikhasi.com) edo deitu telefonoz: 943 371 408.



Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak

ekaina

UEUren XXXII. Udako Ikastaroen eskaintza zabala

Beste behin ere UEUk diziplina eta gai anitzen inguruko ikastaroak eskainiko ditu Biarritzen eta Iruñean. Guztira 36 ikastaro izango dira aukeran. **Biarritzen, uztailaren 5etik 9ra eta Iruñean uztailaren 19tik 23ra.** Hona hemen ikastaroen zerrenda gaia sailkatuz:

Antropologia sailean: "... ta ibili munduan! Euskal diaspora gaur egun", Biarritzen.

Arkitektura sailean: "Landagunegin-tzaren hirigintza", Biarritzen.

Arte sailean: "Nafarroako monarkia artearen bultzatzaile: Done Jakue bidetik gotikora", Iruñean.

Ekonomia sailean: "Eskubide sozialen aldeko mugimendua Euskal Herrian: Iragan oroitzuz, oraina aztertuz, alternatibak landuz", Biarritzen.

"Ekonomiaren demokratizazioa: bestelako ikusmolde/jokamolde ekonomiko batzuetarako giltzarriak", Iruñean.

Eusko Kultur Gaiak sailean: "Nazioherriaren osagarriak gaur egungo Euskal Herrian", Iruñean.

Filosofia sailean: "Arriskuaren gizartea: zientzia eta politika ulertzeko modu berriak", Biarritzen.

Fisika sailean: "Orientazio ezazu zeure burua zeruko esferan", Biarritzen.

GAIN sailean: "Islam politikoa eta globalizazioa", Biarritzen.

Historia sailean: "Sindikalismo abertzalea XX. mendean: ELA eta LAB aztergai", Iruñean.

Hizkuntzalaritza sailean: "Zientzia eta teknikarako euskara. Zenbait hizkuntzabaliabide", Biarritzen.

Informatika sailean: "XML teknologiak. Web-zerbitzuak SOAP bidez", Iruñean.

Kazetaritza sailean: "Kazetariaren eguneroko lana: erredakzioa, maketazioa, diseinua eta profesionaltasuna aldizkari baten garapenaren bidez aztertua", Biarritzen.

"Egin dezagun irratsaio bat etxeko ordenagailutik. Audio digitalaren tratamendua: audio-edizioa estereo eta pista-anitzetan", Iruñean.

Kimika sailean: "Kimikaren bideak: Prestige eta sukaldean zehar", Iruñean.

Literatura sailean: "Irakurketa atelietan", Biarritzen.

Matematika sailean: "Metodo matematikoen aplikazioak", Biarritzen.

Natur Zientziak sailean: "Paisaiaren bilakaera historikoa Euskal Herrian", Biarritzen.

"Prestige ontziaren isurketa: urte eta erdi geroago nola dago Euskal Kostaldea?", Iruñean.

"Laborantza Euskal Herrian", Iruñean.

Osasuna sailean: "Giltzaduratenporo-barailaren inguruko diziplina arteko tratamenduak", Iruñean.

"Etorkizuneko osasun-laguntzaren politika: publikoa ala pribatua?", Iruñean.

Pedagogia sailean: "Nola bultzatu gela ikasteko giroa eta gogoak? Harreman positiboak ezinbestekoak!", Biarritzen.

Psikologia sailean: "Nor naiz ni? Teknika ezberdinen bidez nork bere ezagutzan barna", Biarritzen.

"XXI. mendeko gurasoak: amatasuna eta aitatasuna milurteko berrian", Iruñean.

"Emozioak: beldurra, lotsa, erru-sentimendua, enpatia eta emozioen erregulazioa", Iruñean.

Sexologia sailean: "Nire gorputzak aginduko balu...", Biarritzen.

"Ni ta zu... jo ta su!", Iruñean.

Soziologia sailean: "Demokrazia parte-hartzailea: erronkak eta esperientziak", Biarritzen.

Sukaldaritza sailean: "Jateaz jakiteaz, edo ja(ki)teaz", Iruñean.

Talariatik sailean: "Pertsonen arteko komunikazio egokia - I. modulua", Biarritzen.

"Aromaterapia eta sendabelarrak", Biarritzen.

"Autoenplegua: laneratzeko beste era bat", Iruñean.

"Gogoeta estrategikoa: talde eta erakundeak etorkizuna lantzen", Iruñean.

Yoga sailean: "Yoga eta lasaitasuna", Iruñean.

Zuzenbidea sailean: "Immigrazio-politiken gainetik etorkinen gizartratze duintza helburu", Iruñean.

Matrikula epea

Maiatzaren 19tik ekainaren 27ra.

Informazio gehiagorako:

www.ikastaroak.ueu.org
eta UEUren bulegoak:

*Ipar Euskal Herriko Bulegoa
Douer karrika, 5
64100 Baiona
Tel. eta Faxe: 05 59 25 60 56
ueu@wanadoo.fr

*Egoitza soziala

Erribera kalea 14, 1. C
48005 Bilbo
Tel.: 94 679 05 46
Faxe: 94 479 30 39
gestioa-idazkaritza@ueu.org

*Ikastetxe nagusia

Markeskoa Jauretzea
Otaola Hiribidea 1
20600 Eibar
Tel.: 943 82 14 26
Faxe: 943 82 06 16
markeskoa@ueu.org

*Nafarroako bulegoa

Martzelo Zelaieta 75
IWER eraikina, B2 lonja, 60. bulegoa.
31014 IRUÑEA
Tel.: 948 36 25 63
Faxe: 948 38 46 59
nafarroa@ueu.org

Donostian EHUren udako ikastarakoak izango dira aukeran



EHUko udako ikastaroen XXIII. edizioa prest dago aurten, eta horrekin batera europar ikastaroen XVI. edizioa. Donostian izango dira, ekainetik iraila bitartean. Ikastaro andana dago aukeran. Hona hemen euskaraz izango diren ikastarokoak:

Hizkuntza eta literatura arloan: "Honela idazten dut liburu bat", abuztuak 19 eta 20.

"Haur eta gazte literatura milurte berrian", irailak 1, 2 eta 3.

Informazio zientziak arloan: "Nola eraman zientzia komunikabideetara?", ekainak 24, 25 eta 26.

Hezkuntza: "Umorea hezkuntzan: hobekuntzarako gai eta bide", abuztuak 23, 24 eta 25.

Hobeto bizitzeko ikasten arloan: "Meteorologia eta euskal eguraldiaren martingalak", uztailak 19, 20 eta 21.

Psikologia arloan: "Atxikimendua- en teoriaren aplikazio klinikoak", abuztuak 17, 18, 19 eta 20.

Matrikula epea irekita dago dagoneko eta kopurua betetakoan itxiko da ikastaro bakoitzean.

Informazio gehiagorako:

Ikastaroen idazkaritza
Miramar jauregia
20007 Donostia
Tel.: 943 219 511
E-posta: cursosverano@sc.ehu.es
www.sc.ehu.es/cursosverano

Irakaskuntzako lan arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroa

EILAS sindikatuak **Irakaskuntzako lan arriskuen prebentzioa** ikastaroa antolatu du. Ekainaren 28 eta 29an izango da EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Leioan). Egitaraua honakoa da:

Ekainak 28, astelehena

9:15 Hasiera ekitaldia

9:45 **Prebentzioaren kudeaketa irakaskuntzan:** 2003/04 legeak dakartzen erronkak, Cristobal Molina, Jaengo Unibertsitateko Lan Zuzenbide katedraduna.

11:00 Atsedenaldia

11:30 **Mahai ingurua:** Prebentzioaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzako eta Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailetan.

16:00 Aukeratzeko tailerrak

1.- Eskoletako altzairuei buruzko esperientzia berritzaileak ergonomiaren ikuspuntutik.

2.- Nola jokatu bullying kasu baten aurrean?

Ekainak 29, asteartea

9:15 **Irakaskuntzako langileen osasun zainketa berezia** egin ahal izateko protokolo medikurantz ahotseko arazoak eta gihar hezurretako lesioak. Marisa Kortazar, Hezkuntza Saileko prebentzio zerbitzuko medikua.

10:45 **Estres psikosozialaren prebentziorako esku-hartze psikopedagogikoa** hezkuntza emozionalean. Maite Muñoz de Morales, EHUko Hezkuntza ikerkuntza eta diagnosi metodoak Saileko irakaslea.

12:30 Laneko jazarpen morala eta sexualaren prebentzioa: EHUko akordioaren esperientzia. Ruben Beldia, EILAS-eko lan osasun arloko arduraduna.

16:00 Aukeratzeko tailerrak:

1.- Gihar hezurretako lesioen prebentziorako egitasmo integrala ikastetxe batean martxan jartzeko bideak.

2.- Ikasgelan sortzen diren gatazken kudeaketa: irakasleen estresa prebentziorako lanabesa.

Informazio gehiagorako:

STEE-EILAS UPV/EHU Udako ikastaroa
Tel.: 94 601 24 35
E-posta: lanosasuna@stee-eilas.org
www.stee-eilas.org
www.stee-eilas.ehu.es

Argitalpenak



Publikoa pribatua eztabaidagai!

Eskola publikoa aldizkaria STEE-EILAS

Irakaskuntza publiko-pribatu auziaren arteko eztabaida sustatzeko eta sareen arteko dikotomia horren zergatiak zein irtenbideak argitzeko asmoz, ale berezi honetan sindikatueta ki-deen eta hezkuntza arloko zenbait ordezkariaren iritziak jaso dira. Helburua gogoeta bultzatzea da, jakinik beste hainbat erronka ere badirela eta horiei ere aurre egin behar zaiela •



Uren kalitatea Askoren artean

CEIDA- EUSKO JAURLARITZA DBH eta Lanbide Heziketarako CD-ROM hau uretako kutsatzaileen analisia egiteko baliabide didaktikoa da. Uraren ezaugarri fisiko-kimikoak, eragiketa moduak, analisi datuen interpretazio estatistikoa eta prozedura taula aurki daitezke bertan. Nahiz ere bereziki Ingurumen-kimika goi mailako heziketa ziklorako izan, kimikako gainerako zikloetan eta Batxilergoan ere erabil daiteke •



Galaxien unibertsoan (Unibertsoaren hedapenetik, galaxia kanibaletaraino) GAIAK

Gaur egungo Kosmologiak unibertso zabalari buruz duen ikuskera orokorra azaltzen du liburuak, eta bereziki, kosmos horren oinarriko zelulak diren galaxiak ditu aztertzen. Galaxien eraketa, egitura eta eboluzioa; Hubbleren legea eta unibertsoaren hedapena; espazioaren kurbadura;... horrelako hogeita zortzi gai emagari zeure esku •



Euskal Herriko 101 gaztelu Antton Arrieta Sorne Matxiñena IKASTOLEN ELKARTEA

CD-ROM honek gurean Erdi Aroan izan ziren gazteluen berri ematen digu. Pantailetan gaztelu bakoitzari buruzko datu orokorrak eta zehatzak heldu dira: argazkiak, aztarnak, zergatik eraiki zuten hor gaztelua eta zergatik eutsi zioten bere horretan eraikinari... Gaztelu bakoitzera ailegatzeko argibide zehatzak ere ematen dira, mapa eta gutzi •



Sexologiaren irudi erotikoa hezkuntza zientzietan Iñaki Karrera UEU

Lan honen oinarria idazleak azken hamarkadan sexuen hezkuntzaren inguruan eramadako eskarmentuaren emaitza da. Urteak joan eta urteak etorri, sexu heziketak garai desberdinak ezagutu arren, oraindik ere leku gutxi eskaintzen zaio curriculumetan. Euskarazko terminologia zuzenari ere ekarpen interesgarria egiten dio •



Bi ipotx gure etxeko sofán Arantxa Iturbe ELKAR

Protagonistaren etxean bi ipotx agertu ziren egun batean, baina egunerokotasunean murgidutako aitzak eta amak ez zuten ezer berezirik, ezer magikorik sentitu. Normal-normal jarraitu zuten. Askotan hori gertatzen zaigu. Salbaidirik ba al du horrek? Gure burua eta bizitza ispiluan ikustea izan daiteke horretarako bide bat eta ipuin honetan ispilu asko daude •

200 gaztetxo elkartu ziren II. ZerNola Olinpiaden amaierako festan

Elhuyar Fundazioak antolatzen duen **II. ZerNola Olinpiadako** sari banaketa egiteko 200 gaztetxo elkartu ziren Donostiako Miramongo Zientzien Museoa. www.zernola.net atariaren bitartez, Euskal Herri osoko 92 gela ibili dira lehian proposatzen zitzaizkien probak egiten.

Sari nagusiren irabazlea Gasteizko San Viator ikastetxeko 2. B gela izan da eta asteburu bateko egonaldia irabazi duten Urbasako Bioitza kanpinean. Bigarren postua Iruñeko Jaso ikastolako ikasleek eskuratu dute. Eta hirugarrena Elgoibar ikastolako 1. B gelak. Sari banaketa egiteko festa bat prestatu zuten Elhuyarko kideek. Hasteko, Zientzen Museoa planetariuma bisitatu zuten, eta ondoren hainbat esperimentu egiteko aukera izan zuten. Bazkal ondoren Angel Alkainek proposatutako jolasetan aritu ziren gaztetxoak.



www.zernola.net ataria 2002an jarri zuen martxan Elhuyar Fundazioak 10-14 urte bitarteko gazteei zientzia hurbiltzeko xedez. Atari horrek natura hobeto ezagutzeko erremintak eskaintzen ditu, eta horrekin batera, zientzia alorreko berrikuntzen berri ematen du. Modu horretara, irakasleei lanerako material interesgarria jartzen zaie esku-

ra, eta ikasleei zientziaren alderdi ludikoa ezagutzeko parada. Ildo horretatik, olinpiadak martxan jarri zirenean helburua gaztetxoek zientziarekin gehiago goza zezaten zen. 2002ko I. Olinpiadetan 52 gelak hartu zuten parte, eta aurtengo 92 izan dira. Aurtengo arrakasta ikusita, III. Olinpiadak prestatzeari ekin diote.

Zuzendaritza taldeko kideak hautatzeko dekretu berria EAEn

Sarean-en XVI. Topaketetan hizpide

Ikasturtea amaitu baino lehen burutu ditu Sarean Elkartek bere XVI. topaketak, eta oraingoan gai nagusia eskola publikoetako zuzendaritzen egoera izan da.

Gaur egun arazo nagusia zuzendari falta da, gehienek ez baitute gustuko kargu hori hartzea. Hori dela eta, topaketetan bildutakoek beharrezkotzat jo dute zuzendaritza lana erakargarriago bihurtzea. Horretako, hainbat proposamen luzatu dituzte. Hasteko, zuzendaritza taldeen lana errekonozitu egin behar dela aipatu dute, bai gizartearen aldetik, bai eskola komunitatearen partetik eta bai Hezkuntza administrazioaren aldetik. Bigarrenik, zuzendaritza taldeei eskumen gehiago ematea pro-

posatu dute ikastetxeko proiektuak garatu ahal izateko, eta horrekin batera, behar diren baliabideak ere eskaintzea. Eta hirugarrenik, pizgarriak eskaini behar direla diote: ordutegi eta egutegi malguak, pizgarri ekonomikoak, formazio zabala eta abar.

Zuzendaritza taldeen berriztatze prozesuari dagokionez, Hezkuntza Saileko Ikastetxeen Zuzendari Ramon Martinez de Murgiak adierazi zuenez, aipatu berriztatzea arautzen duen agindu asmoa bertan behera uzteko erabakia hartu du Hezkuntza Sailak. Horrela, LOCEk aurreikusten zuen aldaketa ez da praktikan jarriko. Aitzitik, datorren ikasturterako zuzendaritzen berriztatzea, zereginak eta abar arautuko di-

tuen dekretua garatzeko asmoa du. Zentzu horretan, Sareanek ezinbestekotzat jotzen du ikastetxeen eta hezkuntza eragileen hausnarketa eta iriztiak jasotzea, hots, *"inplikatuaren parte-hartze demokratikoa bermatzea"*. Horrekin batera, garrantzi handia ematen zaio Eskola Kontseiluei aginte organo izaera onartzea eta horren bitartez gauzatzea karguen berriztatze prozesuak.

Datorren ikasturtearen lehen hiruhilekoan dekretua prest egotea espero da. Bigarren hiruhilekoan izendapen prozesua burutuko litzateke, eta hirugarrengoan karguetara helduko diren zuzendari, ikasketaburu eta idazkari berrieintzakoo inarrizko prestakuntza egingo da.

Askagintzaren VII. Asanblada Etxarri-Aranatzen ekainaren 19an

Gazteak eta droga-menpekotasuna izenburua izango duen asanblada egingo du Askagintzak ekainaren 19an Etxarri-Aranatzen. Iaz egin zen gai horri buruzko lehen gazte topaketa, eta geroztik hainbat topaketa, ikastaro eta mintegi burutu dira Euskal Herriko herri batzuetan.

Topaketa horietan droga-menpekotasuna landu eta aztertu da gai askotarikoen bitartez: asoziazionismoa eta droga-menpekotasuna; kazetariak eta droga-menpekotasuna; gazteak eta droga-menpekotasuna; gutxiengo etnikoak, etorkinak eta droga-menpekotasuna eta abar. Arlo bakoitzean droga-menpekotasunaren fenomenoaren ezaugarriak eta egoera aztertu dituzte. Bildutako informazioarekin diagnostiko bat egin dute eta horrekin txosten bat osatu dute. Ekainaren 19ko asanbladan txosten hori aurkeztuko dute.

Droga-menpekotasunaren inguruan hilabeetan zehar egindako hausnarketen emaitzak emango dira ezagutzera.

Gidoilariantzako eta marrazkilarientzako lehiaketa

Sauré argitaletxeak bi lehiaketa antolatu ditu: bata gidoiari buruzkoa, "Inka txikia"; eta bestea umore grafikoa-ren eta tira komikoaren atalekoa.

Gidoi lehiaketa

"Inka txikia" lehiaketan parte-hartzaileek **gidoi** bat aurkeztu beharko dute eta gaia zehaztuta dago: gizarte, ekonomia eta kulturazko bazterketa jorratu beharko du. Protagonista, Manuel, 12 urteko Inka txiki bat izango da, Lima hiriko errabaletan jaiotakoa. Orain Sydney-ko auzo behartsu batean bizi da, non biztanle gehienak Australiako aborigenak diren. Gertakizun guztiak Australian kokatu behar dira, XXI. mendean. Idazleak ipuin moduko bat idatzi behar du, komikirako gidoi formatuan. Bertan, gizakiak, zailtasunak zailtasun eta arazoak arazo, elkarrekin bizi dira eta gauza dira, lan eginez eta umore onez, zorigaitzak gaintzeko. Lan honen helburua pobrezia giza ikuspegitik begiratzen laguntzea da.

Formatuari dagokionez, 11 orrialdeko historieta bat aurkeztu behar da, eta gidoian erabiltzen diren tokien, eraikinen arkitektura eta besteren fotokopiak ere txerta daitezke. Lanak euskaraz zein gaztelania egin daiteke. Lehiakide bakoitzak lan bat edo bi aurkez ditzake. Aurkezteko epea urriaren 23 artekoa da.

Lehenengo saria 1.000 euroako da; bigarrena 450 eurokoa, hirugarrena 300 eurokoa eta laugarrena 250 eurokoa. Saritutako gidoietatik abiatuta, argitaletxeak komiki-marrazkilaria bat aukeratu du 44 orrialdeko komiki oso bat egiteko.

Komiki lehiaketa

Bigarren lehiaketari "**Ingurumena-ri buruzko alegia**" izena eman diote, eta komiki tira da. Kasu honetan ere gaia zehaztuta dago: Andres izeneko



olagarro batek hausnarketa eta gogoeta egin du gizakien jarduerak eta natura-ko fenomenoek (zientzia, garapen jasagarria, garraioa, energia, arrantza intentsiboa eta abar) itsas ingurumenaren gain duten eraginaz. Behar-beharrezkoa izanez gero, marrazkilariak hizketan dakiten alegiazko beste animalia batzuk ere baliatu ahal izango ditu. Istorio-etako edukiak bat etorriko dira tonu baikorreko estilo-ildo batekin eta betiere umore ona erakutsi beharko du.

Formatuari dagokionez, orrialde bakoitzean hiru marrazki zein hiru tira komiko kolorezko egongo dira, eta epaimahaiarentzat marrazki batekin zein tira komiko batekin balio bera izango dute. Dokumentua CD formatuan entregatu behar da eta paperezko bi kopia DIN A4 formatuan. Aurkezteko epea urriaren 30ean bukatzen da.

Lehen saria 800 eurokoa izango da, eta hurrengo lauak 600, 500, 400 eta 300 euro, hurrenez hurren.

Informazio gehiagorako:

Sauré argitaletxea
Goiango industrialdea
San Blas, 11
01170 Legutio- Araba



Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia Opera Prima" narratiba sarien deialdia

Erein argitaletxeak **Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia, Opera Prima" narratiba sarien 2. deialdia** egin du. Lehiaketaren helburua euskaraz idatzitako literatura bultzatzea da, eta orobat, euskal egileak sustatzea.

Euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke; orijinalak eta argitaratu gabek izan behar dute, eta beste ezein literatur lehiaketetan aurkeztu gabeak. Lanak Din-A4 formatuko orrietan aurkeztu behar dira (2.000 karaktere orriko) eta gutxienez 100 orrialdeko luzera izango duten lau kopia bidali behar dira.


Erein-Euskadiko Kutxa narratiba saria aurkeztutako eleberri onenarentzat izango da eta saria 12.000 eurotako izango da. **"Donostia, Opera Prima" saria**, aldiz, 2005 urte barruan 35 urte edo

gutxiago izan edo narratiba libururik argitara eman gabea dela aurrez adierazi duen idazleak idatzitako eleberri edo narratiba lan bikainenarentzat izango da. Saria 4.500 eurotako izango da.

Lanak aurkezteko **epea 2004ko abenduaren 20an** amaituko da. Sari banaketa 2005eko martxoaren bigarren hamabostaldian egingo da, eta urte bereko apirilaren 23rako argitaratuko dira saritutako eleberriak.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

Erein (Erein-Euskadiko Kutxa narratiba saria)
Tolosa etorbidea 107
20018 Donostia



Basauriko garbitzaileen greba

Basauriko herriko egoitza publikoetako garbitzaileek urtarriean hasi zuten greba lan baldintza hobeak eskatzeko. Ondorioz, herriko ikastetxeetako hainbat gela itxi dituzte. Gurasoak protesta egin zuten maiatzaren 24an eta ikasleak ez ziren eskolara joan. Arazoak konpontzeke jarraitzen du, eta besteak beste, ikasleak dira kaltetuak.

BIGE Guraso Elkarteak garbitzaileen greba dela eta ikastetxeen egoera ezagututa zera adierazi nahi du:

- Nahiz eta gutxieneko zerbitzuak zabaldu, erraz soma daiteke ikasgeletan pilatzen ari den hautsa eta zikinkeria; osasun higie-egoera ez da konpontzen astean behingo zoluen garbiketarekin, armaruak, apalategia, mahaiak eta aulkiak ez baitira garbitzen.

- Gutxieneko zerbitzu hori ez da guzuzietara iristen. Zerbitzu horiek banan-banaka itxi dira eta hemendik aurrera ere gehiago itxiko direnaren susmoa badaukagu (dutzak, bulegoak, soinketa gelak, bideo gelak, musika

gelak, ingeles gelak, informatika gelak...).

- Alergia duten haur batzuk gainmedikatuta joaten dira eskolara, gurasoek ezin baituzte etxean mantendu. Alergiak dituzten beste haur batzuk ez dira eskolara joaten.

- Eskolaz kanpoko hainbat ekintza bertan behera gelditu dira edo bitarteko egokirik gabe egiten dira (dutzarik gabe, ikastetxetik kanpo...).

- Hiru egun pasa ondoren bainugeletan infekzioak sor daitezke.

Hori guztia kontuan hartuta, **zera eskatzen dugu:**

1. Ikastetxeen egoera erreala erakutsiko duten datuak jaso ditzala Osasun Sailak (ez begien bistan ikusten direnak soilik).

2. Hezkuntza Sailak behar duenarekin hitz egin dezala gatazka hau konpon dadin.

Hezkuntza Sailak badu zer esanik Basauriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen hezkuntza eskubideez.

Denbora gehiegi psaaatu da eta ez dugu irtenbiderik ikusten, inplikaturik daudenen artean ez baita harremanik egon.

BIGE Guraso Elkarte

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Erabilera eta kalitatea hobetzeko ideien fabrika Gazteizko Koldo Mitxelena institutua

Gasteizen D eredu hutsean sortu zen lehen institutua da Koldo Mitxelena. Guraso talde batek sortu zuen, 1988an, eta garaiko susmo txar eta esanesei aurre egin behar izan zieten.

Etxean euskararik ez zuenak, ezinezkoa omen zuen ikasketak euskaraz egitea, horra askoren beldurra. Hasierako gurasoontzat ausardia froga latza izan zen.

Abel, Joxean eta Edurne irakasleek ere oraindik gogoan dute presioa, lehen ikasle talde hura selektibitateara heldu zenean begi guztiak euren gan jarriak sumatzen baitzituzten, ea zer egiten duten. A zer poza % 100-ak gainditu zuenean. Gaur hezkuntza kalitatea eta euskara ikastea bateragarriak direnik ez du inork zalantzan jartzen. Gaur Koldo Mitxelena ikasleak dira selektibitatean emaitzarik onenak ateratzeagatik nabarmenduz direnak.

Institutuan DEH, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak dituzte. Ikasleak 500 inguru dira eta irakasleak, berriaz, 70.

Etxean ez zuten euskararik ezagutu Abelek, Edurnek eta Joxeanek. Gasteiztarrak dira hirurak. Euren eskola garaian ez zegoen Koldo Mitxelena ere. Joxeanek 9 urterekin entzun zuen lehenengoz euskara, kalean, eta "hori zer da?" galdetu zion aitari. Joxeanek euskararekin lehen kontaktua 12 urterekin izan zuen, oraindik ez daki nola arraiio liburu berdaxka bat heldu zelako bere eskuetara: *Metodo Radiofónico*. Eta jakin zuen euskara izeneko hizkuntza bat bazela, baina ez zekien ez non hitz egiten zen, ez zer soinu zuen.

Gaur ikasleei kontaktzen diete euskara entzun zuteneko lehen aldi hura. Gaur euskara hutsean funtzionatzen

du Koldo Mitxelena irakasleriak, bileratan zein lagunartean, eta ikastetxearen dokumentu guztiak ere euskaraz daude. Ikastetxearen azpiegitura osoa euskalduna edukita, ikasleak dira gaur euren kezka nagusia.

Etsipena eta poza, biak nahasten zaizkie ikasleez hizketan ari direla. "Euren artean erdaraz sumatu eta batzuetan etsipenean murgiltzen naiz, ez zait lan erraza iruditzen" aitortzen du Edurnek. Gero, baina, ikusi zenbat ekintza egiten diren euskaraz ikastetxean, zenbat ikaslek lortzen duen EGA maila ateratzea, ikusi zenbatek egiten duen karrera bat euskaraz eta fakultate-



an zenbatek hartzen duen euskaraz ari-
tzeko ohitura, ikusi Arabako Bertsolari
Txapelketako Finalean bertatik pasata-
koikasleak... eta jabetzen dira lorpenak
ere izugarriak direla. Abelek ez du
ahaztu nahi hori: *“Batzuetan miresga-
rria ere bada nola egiten duten euska-
raz, eskolan soilik izanda hitz egiteko
aukera, ‘mirari’ txiki bat dira”*.

Ikasleek zergatik jotzen dute erdarara?

Ikasleek erdarara jotzeak baditu be-
re arrazoi edo kausa logikoak. Batetik,
ikasleen % 3k soilik ditu etxean guraso
euskaldunak, gainerako denek euska-
ra eskolan ikasi dute; euskara ez dute
oraindik tresna oso zorrotza, eta aisago
aritzen dira erdaraz. Bestetik, kalean,
gizartean, ez dute euskararen beharrik.

Egoera hori izanda, Koldo Mitxele-
nako irakasleek bilan ildo dituzte: bate-
tik euskara beharrezko bihurtzen saia-
tzen dira, eta bestetik euskararen kalita-
tea lantzeari ematen diote garrantzia,
hizkuntza gaitasuna fintzeari, nahiz eta
argi dioten hori ez dela batere erraza.

Euskara kalitatea hobetze- ko, metodologia aldatu behar da

Irakasle asko frustratuta sentitzen
da ikasleek euskara traketsa dutelako
eta ez dutelako erdara besterik egiten.
Abelek, baina, frustrazio horren atzean
dagoen paradoxa agerian jarri digu:
*“Gehienek gela barruan soilik izan du-
te euskara ikasteko aukera. Eta gela ba-
rruan ikasleei apenas ematen zaie au-
kerarik hitz egiteko. Entzumena da
gehien lantzen dutena, ulertu irakasle
“txapas” batek esaten duena. Metodo-
logia aldatu behar da; hizkuntza hel-
buru jarrita, ikasleari hitza emango
dion metodologia behar da”*.

Metodologia aldatu, ordea, ez litza-
teke euskara ikasgai soilik aldatu be-
har: ikasgai guztietan lantzen da hiz-
kuntza eta, beraz, ikastetxe osoaren
eraldaketa sakona eskatuko luke ho-
rrek. Baina ez da batere erraza, erresis-
tentziak daude, nor bere irakas mo-
duak dituelako. Euskara Mintegian,
behintzat, metodologian urratsak ema-



Ezkerretik eskuinera: Abel Urretxo, Edurne Beitia eta Joxean Bueno irakasleak.

tea lortu dute. Irakasleek ahozkoasuna
lantzeko formazioa jaso dute eta egun
euskarako eskoletan garrantzi berezia
ematen diete ahozko jarduna lantzeari,
bai DBHn eta bai Batxilergoan.

Euskara beharrezko bihur- tzen

Euskara beharrezkoa bilakatzea da
irakasleen beste erronkatarako bat. Kol-

**Abel Urretxo:
“Euskara ikas-
teko aukera
bakarra esko-
lan izan dute
gehienek. Eta
eskoletan ira-
kaslea da hitz
egiten duena,
ikasleek entzun
besterik ez
dute egiten.
Metodologia
aldatu behar
da, ikasleei
hitza emanez”**

do Mitxelenan naturalki eta berez, eus-
kara beharrezkoa da esparru batean:
irakasleei beti egiten diete euskaraz
ikasleek, inori ez omen zaio bururatzen
erdaraz egiterik irakasleari. Agerikoa e-
ta oinarrikoa dirudien arren, hori ez da
ikastetxe guztietan gertatzen.

Bestetik, euskara beharrezko
bihurtzen duten elementu klabeak ere
badira: ikasgela guztietan izaten da tal-
detxo bat euskalzalea dena, beti jardun-
duena euskaraz, eta inguruan eus-
kara kutsatzen dute. Gainerako ikasle-
ek, nahiz erdaraz aritu beti, talde ho-
rrengana zuzentzean euskarara jotzen
dute. Talde euskalzale horiek nola
bihurtu “guay”, nola egin erakargarri
ikaskideentzat, hori dute kezka.

Ekimen berri bat jarri dute horretara-
rako martxan lehen ziklokoekin
(errazagoa baita irakasleek txikiengan
eragina izatea). Adin horretakoak zora-
tzen jartzen dituzte sorginkeria kon-



Ikastetxera sartu eta lehen astean ez dute eskolarik ematen: Zuhatza irlara joaten dira lehen zikloko ikasle guztiak, harreman berriak hasieratik euskaraz egin ditzaten.

tuek, magiak, eta misterio ukitu horretan oinarritu dira euskaldun taldea indartzeko. Ikasleei balizko egoera bat jarri diete: *“demagun inork hitz majiko bat aurkitu duela, eta hitz hori esatean bere inguruko denak euskaraz hizketan jartzen dituela”*. Egoera horretan oinarritutako ipuin sariketa bat antolatu dute, eta sari banaketa ekitaldian laugarren mailakoek antzerkia ere egin dute. Antzerkian, erritual batekin ikasle guztiak “sorginduta” utzi dituzte, euskaraz sorginduta. Laster “Sorginduen kluba” sortuko dute, eta hainbat ekimen bultzatu (hitzaldi, jolas, liburu eta diska zozketa...). Talde hori mimatzea, zaintzea dute helburu.

Nerabeeek irakaslearen mezuei errezeloa dietenean

Koldo Mitxelena ikasleek orokorrean badute euskaldun izatearen kontzientzia. *“Baina horrek ere lasaitu egiten ditu -erantsi du Juanjok- jada euskaldunak sentitzen direnez, ez dute euskaraz egiteko beharrik ikusten”*. Kontraesan horren aurrean, zuzenean mezu euskalzaleak emateak ere ez du funtzionatzen Batxilergoko nerabeekin. Adin horretakoek errezeloz hartzen baitute irakaslearengandik dato-

ren guztia. Bi bidetatik heltzen diote arazo horri: batetik, irakasleek eguneroko praktikarekin (beti euskara hutsean jardunez) transmititzen diete euskararen beharra. Bestetik, hitzaldien bidez mezu zuzenak emateko kanpoko eragileak ekartzen dituzte, ikasleentzat gantxoa dutenak: Asisko Urmeneta, Jon Maia, Kike Amonarriz...

Lagunartean euskaraz ari-tzeko chitura sortzen

Ikastetxean sartu eta lehen astean ez dute eskolarik ematen: Zuhatza irlara joaten dira astebete pasatzera DBHko lehen zikloko ikasle guztiak. Izan ere, eskola desberdinetatik iristen dira hona, eta harreman berriak egingo dituztenez, klabea da lehenengo kontaktu hori euskaraz egitea. Lehen ziklo osoan zehar ere ikasleak hainbatetan irteten dira ikastetxetik, euskara lantzeko. Nolegak antolatzen dituen barnetegietan hartzen dute parte, edo Elkarbide proiektuarekin Bidarrain egiten dute egonaldian Iparraldeko ikastetxe batekin elkartzuz. Lehen zikloa asko zaintzen dute irakasleek, hasieratik sortu behar direlako hizkuntza ohiturak, gero bidea samurragoa izan dadin.

Mugimendu handiko institutua da Koldo Mitxelena. Ikasleak hamaika saltsatan aritzen dira denbora librean. BASTOBI guraso elkarteak kirol arloan euskarazko taldeak antolatzen ditu:



saskibaloia, futbol, aerobik, dantza taldeak daude institutuan, baita musika instrumentuen eskolak ere. Bestetik bertsolaritza eta antzerkiak toki berezia du ikastetxean. Ikasgelan lantzen dira biak ere, eta gero eskolaz eskolara aritzen dira saioak eskaintzen.

Hiriari kultur eskaintzak eginez: KM Plaza

Gurasoen ekimenez sortu zen KM Plaza proiektua, dela urtebete. Irakasleek eta zuzendaritzak ere bertan hartzen du parte. Gasteizen ez dago nahi beste eskaintza kulturalik euskaraz, eta hutsune horri ekarpen bat egin nahi izan diote ikastetxetik. Institutuan barrutik bizi dutena kanpora ateratzea, horra helburua; eurentzat igarrantzitsuak diren balioak eta euskalzaletasuna islatu nahi dute Gasteizen. Horretarako, ekitaldiak antolatzen dituzte hiriara begira, kaleko jendeari zuzenduta. Orain artean bi hitzaldi (Bernardo Atxagarena eta Martxelo Otamendirena) eta kantaldi bat (Jon Maiaren “Igelaren Banda”) antolatu dituzte. •



HEZKUNTZA ALORREAN eskaintza

2004-2005 Ikasturterako

GRADUKO IKASKETAK

Irakasle Ikasketak (2.diplomatura)

- Entzumena eta Mintzaira espezialitatea
- Haur Hezkuntza espezialitatea
- Hezkuntza Berezia espezialitatea
- Lehen Hezkuntza espezialitea

Psikopedagogian Lizentzia (2.zikloko lizentzia)

- Hizkuntzen Psikopedagogia
- Eskuhartze Psikopedagogikoa

Bilbon nahiz Eskoriatzan. On-line eta presentziala.

GRADUATU ONDOKO IKASKETAK

On-line ikasteko aukera zabala

- Hezkuntza zentruen zuzendaritza (masterra)
- Informaziorako eta komunikaziorako teknologiak formazioan (aditu ikastaroa eta masterra)
- Kulturen arteko hartu-emanak Euskal Herrian (aditu ikastaroa eta masterra)
- Hizkuntzen kudeaketa (aditu ikastaroa)
- Prestakuntza pedagogikoa (aditu ikastaroa)

Informazio gehiago:

HUHEZI Koop.E.
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriaza

Tel: 943 714157
Faxa: 943 714032
e-maila: sarrera@huhezi.edu

Txirulaz I eta II, Gitarraz, Eskusoinuaz eta Ostadarraren hotsaz liburuen ondoren...

Pianoaz

12€



hik hasi

E I X r Z I

...musikaz gozatzeko beste aukera bat